KIROLA: MENDIKO BIZIKLETA IBILALDIA DOMEKAN, OÑATIN /11

Goienkaria

EGUBAKOITZA • 2004ko irailaren 17a • IV. urtea • 168. zenbakia • DOAN BANATZEKOA

European Newspaper AWARD
Goienkaria
ONDOEN DISEINATUTAKO
TOKIKO AGERKARIA EUROPAN

MANU GOMEZ / ZINEMAGILEA

"Aurten ez noa Zinemaldira, baina egiten ari garen filmaren aurrerapena emango dute" **/8-9**



DEBAGOIENA

Atxaga, Juan Carlos Perez eta Ruper Ordorika, Oñatin /10

BARRUAN GEHIGARRIA: AURRERA DOA EIBAR-GASTEIZ AUTOBIDEA (AP-1)

IRATI AGIRREAZALDEGI

Danbaka, ibarreko musikarion aukera

Zabalik dago Danbaka Debagoieneko I. Musika Lehiaketan parte hartzeko epea musikari debagoiendar guztiondako. Izan ere, atzo, eguena, aurkeztu zuten egitasmo hori Iker Barandiaran eta Iban Arantzabalek, Goiena komunikazio enpresaren eta Espaloia Kafe Antzokiaren izenean. Lehiaketaren helburua da ibarreko bakarlari eta taldeei beste alternatiba bat eskaintzea; horrela, bada, lehiaketako talde irabazleak diskoa grabatuko du. Parte hartzeko, hiru abesti eta hainbat material bidali beharko duzue Arrasateko 132 posta-kutxara, urriaren 7a baino lehen. **/13-15**

Goienka2a

ASTEKO GAIA: ABANDONATUTAKO IBILGAILUAK

Inork nahi ez duen autoa, aparkalekuan

Debagoieneko aparkaleku faltaren arazoa areagotzen duen fenomeno bat gertatzen ari da: izan ere, gero eta gidari gehiagok, auto berria erosterakoan, zaharra, desegitera bidali barik, kalean uzten dute, bertan behera botata, eta aparkaleku bat betetzen.

Bestalde, udalak lanean ari dira aparkaleku gehiago egiteko. Aukeran, lurpekoak egiten dihardute. **/3**

AP-1 autobidearen Arlaban mendateko lanak hasi zituzten atzo, eguena

AP-1 autobidearen zati zailena egiten hasi ziren atzo, eguena. 10,5 kilometro izango ditu Arlaban eta Eskoriatza batuko dituen zatiak, baina bi tunel eta bost zubibide egingo dituzte tarte horretan. Arlaban mendatea ez dute inoiz zulatu, baina lanotako teknikariak ez dira horren beldur. Jarritako epeak betetzen badituzte, 2007ko abenduan zabalduko dute AP-1 ordainpeko autobidea. **/4**

DEBAGOIENA

Ibarreko berben hiztegia kaleratuko du Bergarako Udalak

Debagoieneko hitzak eta erabiltzen diren esamoldeak jasotzen dituen hiztegia egin du Juan Martin Elexpuru idazle uberarrak. Hiztegi hori Durangoko Azokarako argitaratuko du Bergarako Udalak. Hiztegiak 800 orritik gora eta ia 1.000 argazki izango ditu. Berbak, esamoldeak eta esaera zaharrak batuko ditu. **/5**

DEBAGOIENA/4-5 • IRITZIA/6 • HERRIZ HERRI/7 • KIROLA/11 • NON-ZER/16-17 • SAILKATUAK/18 • ESKELAK/18 • DENBORA-PASA/21 • TELEBISTA/22

Euskadi geldi ez dadin:

Bai

Euskaldunok Euskadirentzako etorkizun hobeari bai esateko aukera dugu orain. Eta honetan denok gaude ados.

- **Bai garraio sistema moderno eta gaur-gaurkoari**, energia aurreztu eta ingurumena errespetatzen duenari, gure errepideetako trafikoa arindu eta istripuak gutxitzen dituenari, lurralde eta pertsonak hobeto lotu eta Europara gehiago hurbiltzen gaituenari.
- **Bai prestazio handiko trenari**, gure ekonomiaren eragile denari eta merkataritza eta salgaien mugimendua azkartzen duenari.
- **Bai aurrera egiteari** eta bide lasterretik etorkizun oparoago baterantz jotzeari.

Oraintxe dugu Euskal Yari baietz esateko aukera.
Ez dezagun gal aukera hau.

VASCA
Euskadi geldi ez dadin.

aurrera doan herria

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

GARRAIO ETA HERRI LAN SAILA

DEPARTAMENTO DE TRANSPORTES Y OBRAS PÚBLICAS

EuskoTren

Batzuk leku bila, beste batzuk premia barik horiek betetzen

Autoa kalean abandonatzen du askok eta aparkaleku falta areagotu

LEIRE KORTABARRIA

Aparkalekua topatzea Debagoienean gero eta arazo larriagoa da. Ibarrean bakarrik ia 33.000 auto daude erroldatuta aurten, eta horiendako ez daude behar bezainbat aparkaleku: Arrasaten, leku eskasia handiena den herrian, adibidez, 12.000 auto inguru daude erroldatuta, eta horiendako 9.000 aparkaleku publiko inguru dago. Hori, egunero lan edo ikasketa kontuengatik etortzen diren ibilgailuak kontuan hartu barik. Beste datu bat ematearren, Laubideko lur azpiko aparkalekua, 63 lekurekin, 5.000 autok erabiltzen dute hamabostean behin.

Udalak ibili badabiltza konponbidea ipini eta aparkalekuak egiten. Geroago eta gehiago lurpean eraikitzen ari dira aparkalekuak: Arrasaten eta Oñatin horretan dihardute, eta Bergarako eta Aramaioko udalek asmo berbera dute epe laburrerako. Ordea, leku kopurua ez da ibilgailuenaren pareko erritmora igotzen.

Arazoa, baina, ez da leku faltarena bakarrik, baizik eta gidarion jarrerarena. Izan ere, ibarreko herri txikienetan ibilgailuak behar ez den tokian pilatuta ikusten baditugu, ez da leku faltagatik, baizik eta erosotasun kontuagatik: berez, Aramaion, Antzuolan edo Elgetan, adibideak ematearren, ez da aparkalekurik falta, baina "aparkaleku librea ez dago beti nahi den tokian, herri erdialdean edo etxeko ate parean", dio Aramaioko alkate Mertxe Mondragonek.

L.K.

Debagoienak duen leku arazoa konpontze aldera, gero eta lur azpiko aparkaleku gehiago dago.

Herri handienetan, erosotasun horrek lehendik dagoen arazoa okerragotu egiten du. Udalek diotenez, herri gehienetan autoendako bezainbat garaje badago, baina gidari askok gurago dute autoa etxe inguruan, kanpoan uztea.

EROSOTASUNAREN ONDORIOAK

Erabiltzen diren ibilgailuez gain, ordea, dagoeneko erabiltzen ez direnak ere arazo bihurtu dira. Izan ere, gero eta familia gehiagok erosten du bigarren auto bat. Alabaina, zaharra desegitera eraman baino errazago eta erosoagoa da beste barik kalean abandonatuta uztea, eta horixe egiten du jende askok. Auto horiek aparkaleku baten geratzen dira. Arrasateko Udaltzaingoak halako 20 bat kasu zenbatu ditu aurten; Oñatin eta Aretxabaletan urtero zortzitik dozena erdira kasu izaten dira.

Legea eskuetan, ezin da autoa leku berean 15 egunetik gora utzi; baina hori kontrolatzea zaila da, eta inoiz hilabete askoan egon izan dira autoak abandonatuta. Baita urteak ere. "Batzuetan herritarren batek abisatzen digu, baina askotan denbora luze joaten da auto bat bertan behera utzita dagoela konturatu orduko. Jendeak konturatu beharko luke herrian ez dugula hainbeste aparkaleku", diosku Jose Antonio Oñatiko udaltzainburuak.

UDALAREN ERANTZUNA

Udalek abandonatutako auto baten berri jasotzen dutenean, jabearekin harremanetan jarri eta kentzeko eskatzen diote. Normalean, hala egiten dute; baina arazoa ez da beti hain modu errazean konpontzen. Autoa baja emanda badago, udalak kendu egin dezake; baina askok alta eginda segitzen dute. Hor hutsune handia dago egin behar denaren gainean. Arrasaten eta Bergaran badute autoondako biltegia, baina gainerako herriek ez, ez eta garabirik ere. Gainera, autoa kentzea ez da beti soluzio onena; izan ere, mugitzerakoan, autoa hondatzen bada udalaren erantzukizuna da. Ondorioa da auto abandonatua aparkalekua hartzen egon daitekeela hilabete askoan.

Izurrite hori Arrasaten, Bergaran, Oñatin eta Aretxabaletan jasaten dute batik bat. Baina gainerakoak ere ez dira guztiz libratzen: "Normalean ez da gertatzen, baina badugu kasuren bat edo, bai. Guk ezin dugu lekutik kendu, hortaz, jabearen esku dago", diosku Antzuolako Udalak. Badirudi irtenbide onena dela, hasteko, autoa dagokion lekura eramatea: desegitera.

Aukeran, lur azpian

ANTZUOLA
Etxebizitza berrien inguruan aparkalekuak egin dituzte. Ez dago aparteko leku arazorik.

ARAMAIO
Lurpeko aparkalekua egingo dute. Bestalde, etxebizitza berrien inguruan garajeak egingo dituzte, horietako batzuk publikoak.

ARETXABALETA
Errekabarrenean lurpeko aparkalekuak egiteko ikerketak egiten ari dira. Bi solairu egingo dituzte.

ARRASATE
Laubiden lur azpiko aparkalekua dago, 160 autorendako. Biterin 427 autorendako beste bat egiten ari dira.

BERGARA
63 lekuko lurpeko aparkalekua dago Ibargarain. Beste bat egin nahi dute.

ELGETA
80 bat aparkaleku egokitu dituzte orain azkenengo.

ESKORIATZA
Ikerketa enkargatu dute, eta horren gainean hartuko dituzte hurrengo erabakiak.

LEINTZ GATZAGA
Ez dago leku arazorik.

OÑATI
Kiroldegi inguruko aparkalekua jaien aurretik zabaldu nahi dute. Kalegoienean, gainera, 180 autorendako lur azpiko aparkalekua egiten dihardute.

Auto abandonatuei, zer burubide?

1. JABEARI DEITU
Autoa abandonatuta dagoela antzematerakoan, jabeari deitzen dio Udaltzaingoak.

2. GEHIENEK KASU EGITEN DUTE
Jabeak kendu egiten du autoa, normalean. Ez badu egiten sortzen da arazoa.

3. KALEAN, LUZAROAN
Herri gehienek ez dute garabirik. Kendu ezean, autoa luzaroan geratzen da han.

4. ISUNIK EZ
Legez, 15 egunetik gora ezin da autoa leku berean utzi. Baina ez da isunik ipintzen.

Ibilgailu kopurua

HERRIA	IBILGAILUAK
Antzuola	1.181
Aramaio	1.019
Aretxabaleta	3.163
Arrasate	12.128
Bergara	6.000
Elgeta	633
Eskoriatza	2.333
Leintz Gatzaga	145
Oñati	6.297
GUZTIRA	**32.899**

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2004ko irailaren 17a

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Kutxa barruan, atzoko egunkarietako aleak eta txanponak sartu zituzten Arabako eta Gipuzkoako diputatu nagusiek.

Hasi dituzte Arlaban eta Eskoriatza lotuko dituen AP-1 autobideko lanak

10,5 kilometro izango ditu eta 200 milioi euroko aurrekontua du

GOIATZ ARANA

Gipuzkoako eta Arabako Diputazioetako ordezkariek jarri zuten Arlaban eta Eskoriatza lotuko dituen zatiaren lehen harria. Autobideko ordainsaria Araban jarriko dute eta Eskoriatzan sarrera izango du. Bi tunel eta bost zubi egingo dituzte.

Atzo, eguena, hasi zituzten AP-1 autobideko Arlaban-Eskoriatza zatiko lanak. Arabako eta Gipuzkoako Diputatu Nagusiek akordioa sinatu zuten lanak elkarrekin egiteko, eta bien artean jarri zuten lanen lehengo harria, Eskoriatzako Marin eta Zarimutz artean.

Eibar-Gasteiz autobidearen zati horrek 200 milioi euroko aurrekontua du eta 10,5 kilometroko luzera. Tarte motz horretan bi tunel egingo dituzte. Zarimuzko tunelak 400 metro izango ditu, eta Arlabangoak, 3.380. Euskal Autonomia Erkidegoko tunelik luzeena izango da hori, eta lan zailena eskatuko duena. Bi tunelez gain, bost zubibide ere egingo dituzte, Marin, Zarimutz, Mazmela, Uztarreta eta Apotzagan.

GIPUZKOA ETA ARABA BATZEKO

Gipuzkoako eta Arabako Diputatu Nagusiek, Joxe Juan Gonzalez-Txabarrik eta Ramon Rabanerak, autobide horrek "bi lurraldeen harremanak estutuko dituela"

EAEko tunel eta biaduktu luzeenak izango ditu AP-1 autobideko zati horrek

esan zuten. Garrantzi ekonomikoaz gainera, lan horiek azpiegituran duten garrantzia ere aipatu zuten bi diputatuek. Bi diputazioen kasuan, hauxe da aurrekontu handiena eskatu dien lana.

2007KO ABENDURAKO

Eibar eta Gasteiz lotuko dituen AP-1 autobideak bost zati ditu. Horietako bi zabalik daude dagoeneko: Eibartik Bergarara doana 2003ko abenduan zabaldu zuten eta Bergara hegotik iparrera doana 2004ko uztailean inauguratu zuten. Arrasateko zatia datorren udan zabalduko dute, eta, jarritako epeak betetzen badituzte, 2007ko abendurako bukatuko dituzte lan guztiak.

AP-1 autobideak kaltetutako herritarrak ere izan ziren Arlabanen. Euren esanetan, puntu batzuk aztertzeko dituzte oraindik, baina itxaropentsu daude.

Gazte sortzaileendako grafiti lehiaketa abian du Topaguneak

OIHANA ELORZA

Finala Mendaron egingo da, eta parte hartu nahi dutenek irailaren 25a baino lehen aurkeztu beharko dute euren ideia Topaguneak Abadiñon duen bulegoan. Grafiti erakusketak, tailerrak, eta musika eta DJ tailerrak ere egongo dira.

Gazte sortzaileendako grafiti lehiaketa antolatu du Topagunea Euskara Elkarteen Federazioak. Urriaren hasieran, hilaren 2an, izango da finala, Mendaron, baina lanak aurkezteko epea zabalik dago oraindik: irailaren 25ean amaitzen da.

BALDINTZAK

Lehiaketa horretan, 15 urte baino gehiagoko Euskal Herriko gazteek parte hartu ahal izango dute, bakarka nahiz taldeka. Teknika librea izango da, eta gaia, euskara. Irailaren 25a baino lehen, grafitiaren marrazki zirriborroa DIN A3 formatuan eta koloretan aurkeztu behar dute. Gaia, diseinua eta koloreak baloratuko dira. Finalerako, hamar horma zati esleituko dituzte. Pareten tamaina: lau eta sei metro arteko zabalera eta bi edo hiru metro arteko luzera.

GRAFITI TAILERRAK ERE BAI

Finalean, urriaren 2an Mendaron, erakusketa jarriko dute Espainiako grafiti egile ezagunek. Herriko eraikin baten aurrealdea margotuko dute Okuda, SLK, Isra eta Dibok. Grafiti eta musika tailerrak ere egingo dituzte.

DEBAGOIENEAN LABUR

Gripearen aurkako txertoa hartzeko kanpaina zabalik dago osasun etxeetan

Herri batzuetan gaur, egubakoitza, hasi da gripearen aurkako txertoa hartzeko kanpaina eta beste batzuetan datorren astelehenean, irailaren 20an, hasiko dute. Txertoa hartzeko, nork bere herriko anbulatoriora deitu eta txanda hartu beharko du. Hala ere, 65 urtetik gorakoak zuzenean joan daitezke. Arrasaten eta Bergaran, anbulatorioaz gain, beste leku batzuetan ere emango dute txertoa, erretiratuen egoitzetan kasu. Gripearen aurkako txertoa hartzeko kanpainak urriaren 31ra arte iraungo du.

Errepide guztietan ibiltzeagatik kobratzea aztertzen ari da Gipuzkoako Diputazioa

Ordainpeko autobideak ez diren errepideetan ibiltzeagatik kanon bat kobratzea aztertzen dihardu Gipuzkoako Diputazioak. Oraindik ez dute ezer erabaki, aukera aztertzen eta asmoa bideragarria izango ote den ikertzen ari dira. Asmoa gauzatzen bada, auto asko ibiltzen diren errepideetan aplikatuko litzateke kanon hori, hala nola, N-1 eta A-15 errepideetan. Aukera horren azterketa jasoko duen txostena egiteko hamar hilabete beharko dituzte.

Autorik Gabeko Astean daude Arrasaten, bizikleta eta garraio publikoa bultzatzeko

Atzotik, eguena, datorren martitzena arte, Autorik Gabeko Astea egingo dute Arrasaten. Autoa gutxiago erabiltzearen aldeko ekimenak antolatzen ditu urtero Arrasateko Udalak, eta aurten ere horrela izango da. Egun hauetan Arrasateko hainbat kale itxita egongo dira autoendako, eta gaur, bihar eta astelehenean, herriautobusa doan erabili ahal izango dute, bonoa aurkeztuta. Bizikletaren eta garraio publikoaren erabilera bultzatu nahi dute.

Zazpi milioi euroko eskaera jaso du Txinako partzuergo batetik Fagor Arrasatek

Prentsa bidezko ebaketa linearako zazpi milioi euroko eskaera jaso du Fagor Arrasatek Txinako hiru enpresak osatzen duten partzuergotik. Linea guztiz automatizatua izango da eta ordenagailuz kontrolatua. Osagai teknikoen artean, bobinetarako biltegi mugikorra, ahalmen handiko karga orga bat eta altzairua zabaltzeko makina motorizatu bat azpimarra daitezke. Ekitaldi honetan ehun milioi euro fakturatzea espero du Fagor Arrasatek.

Margotu dute Gatzagako bide zaharra

Eskoriatzatik Gatzagara doan errepide zaharra margotuta dago jada. Errepidea udako oporretan asfaltatu dute, abuztuan gehienbat, baina aste honetan egin dituzte marra zuriak. Asfaltatu osteran, puntu txiki zuri batzuk margotu zituzten errepidearen erdian. Gauez, ordea, oso gutxi ikusten ziren eta euriarekin ere zailagoa zen errepidea behar bezala ikustea. Orain, marra zuriak margotuta, bertatik egunero pasatzen diren milaka gidariek hobeto ikusiko dute errepidea. /O.E.

‘Gu eta gure hizkuntzak’ eguna egingo dute bihar, zapatua, Oñatin

Hizkuntzak aldarrikatzeko festa izango da

JULEN IRIONDO/OIHANA ELORZA

Euskara, galegoa eta katalana aldarrikatu nahi dituen eguna antolatu dute biharko, Oñatin. Euskal Herria, Galizia eta Katalunia elkartuko ditu egun horrek. Gauean, Bernardo Atxagak funtzioa eskainiko du, Ordorika eta Perezekin batera.

Euskal Herriko, Galiziako eta Kataluniako gastronomia, poesia, dantza, kultura eta hizkuntza elkartuko dira bihar, zapatua, Oñatin. Laixan euskara elkarteak antolatu du eguna, Oñatiko Udalarekin batera, eta euskara, galegoa eta katalana aldarrikatzeko eguna da.

Hiru lurraldeotako musikariek, sukaldariek, poetek eta herritarrek hartuko dute parte. Bernardo Atxaga, Ruper Ordorika, Harkaitz Cano, Juan Carlos Perez eta Tere Irastortzak hartuko dute parte, besteak beste. Galizia eta Kataluniatik, Emma Couceiro eta Miquel Desclot poetak etorriko dira eta Galeusca poesia antologia (1990-2003) liburua aurkeztuko dute.

Egun osoan, hiru hizkuntzetako hiztegi txikia banatuko dute.

ATXAGAREN ERREZITALDIA

Bernardo Atxagak errezitaldia eskainiko du bihar gauean. Ez da bakarrik egongo; ondoan, Ruper Ordorika, Juan Carlos Perez eta Joan Piris musikariak izango ditu.

Ruper Ordorikaren esanetan, “saio erakargarria izango da, edozein herritarrek gozatzeko modukoa. Bernardoren dohainetako bat da narrazioen bitartez poesiaren inguruan egon daitezkeen giroak zabaltzeko eta bata bestearekin uztartzeko duen abildadea”.

Ruper Ordorika bera izan da festa egun horren bultzatzaile nagusietako bat. Iazko abenduan, *Berria* egunkariaren aldeko kontzertua egin zuen Oñatin, eta horren ostean, Laixaneko kideekin harremanetan jarraitu zuen. “Pentsatu genuen horrelako jaialdi puntualak beharrean, urtetan jarraikortasuna izango lukeen beste zerbait antolatu behar genukeela, eta horren hasiera da hau”, azaldu zuen prentsaurrekoan musikari oñatiarrak. “Hemen lehenengo mailako bizi maila dugu, baina hau ez da gero euskal mundura islatzen. Zaila egiten zaigu euskal munduan gastronomiatik, kiroletik... ateratzea. Gure bizimodua lehenengo mailakoa bada, kultura arloan ere maila berekoak behar lukete izan gure eginbeharrek”, gaineratu zuen.

Hizkuntzak aldarrikatzeko eta hiru lurraldeak elkartzeko eguna izango da

ZAZPI PISUKO GIZA DORREA

Gauean Atxaga, iluntzean Cano, Irastortza, Desclot eta Couceito poetak eta eguerdian castellersak egongo dira, besteak beste. Kataluniako Vendrell herritik 140 lagun etorriko dira Oñatira, euren musika taldearekin batera, eta eguerdian, zazpi pisuko giza dorrea egingo dute plazan.

GAUR, POESIA ERREZITALDIA

Gaur, egubakoitza, iluntzean, olerkigintzaren inguruko solasaldia egingo dute kultura etxean. Elkar Hezi ikastetxeko ikasleek eta Galiziatik eta Kataluniatik etorritako poetek hartuko dute parte.

OIHANA ELORZA

Laixaneko, Udaleko eta festako parte-hartzaileek eman zuten prentsaurrekoa Oñatiko kultura etxean.

Debagoieneko hitzen hiztegia egin du Juan Martin Elexpuru idazleak

Hiztegi ilustratua izango da, eta Durangoko azokarako kaleratu nahi dute

O.E.

Ibarreko hitzak eta erabiltzen dituzten esamoldeak jasotzen dituen hiztegia egin du Juan Martin Elexpuru idazleak. Hiztegiak 800 orritik gora eta ia 1.000 argazki izango ditu. Bergarako Udalak argitaratuko du hiztegia.

Debagoieneko hitzak, esamoldeak eta esaera zaharrak batuko ditu hiztegiak. Azalpenaren ondoan adibideak izango ditu. Hiztegiak, gainera, gehigarri batzuk ere izango ditu: deklinabidea eta herriko euskaran idazteko irizpideak, besteak beste.

Hiztegi mardula izango da: 800 orri baino gehiago izango ditu eta ia 1.000 argazki. Hitzak, esamoldeak, Juan Martin Elexpuru idazleak batu ditu, eta ilustrazioaz, berriz, Jaione Isazelaia arduratuko da. Bergarako Udalak argitaratuko du hiztegia, eta Durangoko azokarako kaleratu nahi du. Gabonetarako, hala ere, kalean izango da.



GOIENKARIA

Juan Martin Elexpuru idazle uberarrak jaso ditu gure ibarreko berbak.

Elexpuru 20 urte zituenean hasi zen Bergarako eta inguruko hitz eta esamoldeak biltzen. Doktore-tesirako lan horixe aurkeztu zuen eta orain hiztegian sartu du lan hori. Debagoieneko hitz eta esamoldeez gain, Eibarkoak eta Soraluzekoak ere agertuko dira hiztegian.

Gutunak

Iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeagoko gutunik orrialde hauetan. Izena, telefonoa eta helbidea ipini beharko dira.

Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Telefonoa: 943 76 92 71
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: goienkaria@goiena.com

Kepa Junkera euskaraz

Orain dela gutxi, iaz uste dut, Kepa Junkerak kontzertu bat eskaini zuen Aretxabaletan. Bertan entzun aurretik, Kepa erdalduna zela pentsatzen nuen, eta a zelako sorpresa! Berba egiten zuen bakoitzean, euskara hutsez egiten zuen. Seguruenik gazteleraz askoz hobeto egingo zukeen, baina euskaraz egin zuen.

Ni euskaldun berria naiz eta sekula ez dut guztiz ondo berba egingo; beraz, zenbat euskara jakin behar dut euskalduna izateko? Gaur atzo baino euskaldunagoa naiz? Eta lau urte barru?

Txikik, Francok fusilatutako azken ETA kideak, ez zekien euskaraz. Iturgaitzek, berriz, nahiz eta gaizki egin, euskaraz berba egiten du, komeni zaionean.

Euskara da euskaldun egiten gaituena, ados, baina ez da gauza bakarra. Euskalduna izateko, lehenengo urratsa euskaldun sentitzea da. Horretaz gain, euskaldun zahar batek sekula ez du jakingo zein gogorra den euskara ikastea.

Hemendik zorte ona opa nahi diet euskara ikasle guztiei, egun batean euskaldun izan ahal gaitezen.

AITOR ALCAIDE LUQUE
Aretxabaleta

Zuzenketa

Aurreko zenbakian Udal Euskaltegiek egindako mintegiaren berri eman genuen, eta han idatzitako okerra zuzendu gura dugu. Debagoienean hiru Udal Euskaltegi daudela idatzi genuen. Berez, lau daude: Eskoriatza eta Aretxabaletako udalek kudeatzen duten Leintz euskaltegia eta Arrasateko, Bergarako eta Oñatiko Udal Euskaltegiak. Laurak Gipuzkoako Udal Euskaltegien barruan daude.

GOIENKARIA

Hemeroteka

Errauste plantaren beldur

Abuztua ederki baliatu dute batzuek Gipuzkoako errauste planten plana saltzen hasteko. Xabier Garmendia Gipuzkoako Hondakinetarako Planaren erredaktorea eta M.A. Muñagorri Txingudi Mankomunitateko gerentea etxerako aritu dira lanean, eta, beren kideek izenpetutako artikuluak eta iragarkiak erabilita, gogor egin dute errauste planta baten ondoan bizitzea arriskutsua dela prentsan esan duten medikuen aurka eta errauste plantei beldur diela dioen nornahiren aurka.

Harro-harro egin dute proiektuaren alde, alderdi politikoen babesa oinarri hartuta, eta horrek begi bistan utzi du gure botoak harrokeriaz eta gehiegikeriaz darabiltela, guri inolako egitasmotan ez zegoena inposatzeko. Errauste planta eraikitzeko interes handiak daude, eta presaka ibili dira zaborren eta zabortegien kudeaketa penagarria izan dela ezkutatzeko. Interes eta presa horiek kontuan harturik bakarrik ulertuko dugu hainbeste alderdi errauste planten alde egotea. Egin diren ikerlan askotatik bi soilik gogora ekarriko banitu, nahikoa izango litzateke edozein izutzeko, errauste planta baten ondoan bizitzeko gogoa kentzeko. Knoxek, 2000. urtean, garbi erakutsi zuen haurren minbizia eta leuzemia normalean halako bi dela 5 kilometroko inguru batean. Saintotek, 2004. urtean, agerian jarri du bularreko minbiziak gora egiten duela errauste planta baten alboan bizi diren emakumeen artean. Aurrekoa gutxi ez, eta Eusko Jaurlaritzako Osasun zuzendariak, Gonzalez de Galdeano jaunak, osasunerako arriskutsua dela aitortu zuen Gipuzkoako Batzar Nagusietan, eta, gainera, esan zuen azterketa zorrotzak egingo dizkiotela errauste plantetatik hurbil bizi direnei...: horrek esan nahi du haur osasuntsuei odol azterketak egitea. Zergatik? Arriskutsua delako planta horien ondoan bizitzea. Medikuntza ikasitakook badakigu ondorioak ekarriko dituela urte batzuk barru. Errauste planten aldeko industriari talde horrek egiten dituen elkarrizketa eta iragarki guztietan, duda izpirik gabe ziurtatzen dute informazio osatua eman dela eta eztabaida sakon zabala egin dela. Eskerrak Irungo eta Hondarribiko jendeak ondo dakien Txingudin zer gertatu den: 2000. urtean hasi ziren proiektua lantzen; 2003ko uztail bukaera aldera iragarri zuten proiektua jendaurrean, baina ezkutatu egin zituzten errauste planta hitzak, eta "hondakinak tratatzeko planta" eufemismoa erabili zuten; 2004ko otsailean jakin genuen errauste planta izango zela, proiektua eginda eta lurrak erosita zeudenean, baina oraindik ere ezkutatu egin zuten tximinia, museo itxura eman nahian; medikuen gaitasuna aitortzen zieten, gainera, teknologia horretako jakitunei, kimika eta biologia doktoreei. Zer eztabaidatu du jendilaje horrek, erraustearen inguruko jende horrek? Txingudin, zaborrekin arazo handia daukagula jakin dezagun nahi zuten, baina ez beste ezer jakitea... Horregatik ekarriko digute zaborra Frantziatik ere. Nola lortzen du jende horrek lege dekretuak saihestea; hots, industria kaltegarriek, osasungarriak ez direnek, toxikoek eta enbarazu egiten dutenek herrietatik 2.000 metrora egon behar dutela agintzen duen lege dekretua saihestea? Planta non jarri aukeratu aurretik ez dituzte ikusi umeen eskolak handik 400 metrora? Ziur nago ez dudala beste mugimenduak defenditu beharrik izango, beste herritarrak defenditu beharrik izango, errauste planten kontra egoteagatik kargu hartzen dieten kazetariak defenditu beharrik izango. Ez dut esan beharrik izango OMEk, 1999an, ez zituela bereizten errauste planta berriak eta zaharrak, eta ingurumena dioxinaz betetzearen errudun nagusitzat jo zituela. 2003an, kartzinogeno asko isurtzen dituztela adierazi zuten. Era berean, ez da beharrezkoa izango gogoratzea Danimarkan eta Japonian dituztela errauste planta/biztanleak ratiorik handienak horretara behartu nahi gaituzte Gipuzkoan, eta Txingudin 60.000 pertsonako errauste planta bat izango da ratioa). Mundu osoan, Danimarkan dute emakumeen minbizi tasarik handiena, eta Japoniak du kutsadura tasarik handiena; horrek, jakina, eragina du arnas gaixotasunetan eta tumoreetan. Nola ez, beldurraz ari gara: etxetik hain gertu eraiki nahi diguten horri diogun beldurraz, horko gasei eta errautsei diegun beldurraz, eskrupulurik gabeko jendeak plantak gobernatzeari diogun beldurraz, gure botoak nahierara erabiliko dituzten beldurraz; beldurra, azken batean, gibeleko minbiziari, ehun leuneko sarkomari, linfomari, bizkarrezur bifidoari eta bularreko minbiziari... Gure seme-alabaren bat gaizkitzen ikusteko beldurra, errauste planta hura geratzeko behar adina ez egin izana ekarriko baitigu gogora.

JOSE CRUZ RUIZ VILLANDIEGO
(sendagilea)
Berria (2004/09/15)

Ixabelen bidetik

Mega-rural hasi da ikasturte berriko *Sorginen Laratza*.

Honako artikulua ere ber gisan hasteak (mega-rural hitzarekin) saioaren aurka jardungo dudala adieraziko luke (mega-rural hitza modu positiboan hartzeak zaila dirudi-eta).Baliteke, baina, edukia bigarren mailakoa dela zuek ere pentsatzea (eta lehen mailakoa egiteko modua genuke: medioa mezu, axioma famatua). Orduan, nirekin bat etor zintezkete: herenegungo saioan, pasarterik onenak, hain zuzen, mega-ruralenak izan ziren. Kristo maitea, zer-nolako pertsonaia asmatu duen Alkain jaunak oraingoan! Baserri giroan "primiziya" bila dabilen J. J. Altuna kazetari harrigarria. Lehen atalean ikusi genuenez (oso ongi errealizatutako atala) egiazko baserritarren artean mugitzen da Altuna kazetaria, bera bertan sortua baita. Baina Alkain-Altunaren itxura, hasieran, dezkontzertantea iruditu zaigu: rockabillya ote? Sasi-rockabillya-edo. Alde batetik, baserri giro tradizionalean Altunaren jazkera zein orrazkera "mordernoak" genituzke. Gaur egungo joera moderno-modernoekin alderatuta, ordea, rockabilly itxurak jada ukitu zaharkitua dauka. Baita rurala ere, zenbait estereotipo yankie tarteko (blue-grass mundua, honky-tonk, cajun-zydecho…). Berdin dio. Hortik aurrera, Anjek Alkainen sorkuntza lana nagusituko zaio pertsonaiari, eta kontrajarrian diruditen osagaiok maisuki uztartzea lortuko du berak, herenegun inguruan aritu zitzaizkion gainerako antzezleek ere modu bikainean lagunduta, gaineratu behar.Kontu berri askotxo aipa daitezke *Sorginen Laratza*ren lehen saioaz —onak eta txarrak—, baita kontu zaharrak ere: gidari gisa Euzkitze sendo ari zela, jada, ez dugu albiste. Egongo da norbait azpeitiarraren estiloa gustuko ez daukana, noski. Modu objektiboan azter daitezkeen eginkizun nagusietan, ordea (egoerak eta pertsonaiak nola aurkeztu, edota elkarrizketetan tempoa nola zaindu) inor ez dago ETBn, egun, berak bezain ongi medioa kontrolatzen duenik. Ariketa ia-ia organikoa dirudi telebistak Euzkitzeren eskuetan.

FERMIN ETXAGOIEN
Berria (2004/09/16)

Udazkena

Udazkenak deslekutu diren gauza guztiak birlekutzen ditu, gugandik hasita, eta begiek erakusten digutena geure izaeraren ispilu baino ez da, hondamendi ttiki hori. Udazkena ez da manu militari aritzen, ez da extua edo zikoitza, baina fribolitatea eta errazkeria ere ez ditu maite, eta horregatik da gardena, dakarkigun mezua ez delako hutsala, transzendentea baizik. Begiratzen jakin behar da, kontenplatzen, erreparorik gabe erreparatzen, kanpora nahiz barrura, guztiz biluztu artean. Geuk ere zainak erakutsi behar dizkiogu naturari, geure muinaren txirotasuna, ahalkerik gabe eta egiazki, arropa garbi eztiak jantzi aurretik, begien kolorea eta eskuen leuntasuna eta odolaren mintzoa mudatu baino lehen.

KARLOS LINAZASORO
El Diario Vasco (2004/09/16)

Goienkaria
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

ZUZENDARIA
Eneko Azkarate

ERREDAKZIO KONTSEILUA
Edorta Mendieta,
Miguel Angel Elkoroberezibar,
Josemari Velez de Mendizabal

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gaintzarain,
Ane Berezibar, Arantzazu Arana

SAILETAKO ARDURADUNAK
Iñaki Iturbe (Diseinua)
Gotzon Arzelus (Publizitatea)

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga, Natali Martínez,
Izaskun Bolinaga, Ziortza Martín,
Imanol Elortza, Amaia Mundiñano

PRODUKZIOA
Iban Arantzabal

TESTUEN ZUZENKETA
Sergio Azkarate

HARPIDETZA ETA BANAKETA
Marta Leturia

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

LEHENDAKARIA
Estepan Plazaola

ZUZENDARI NAGUSIA
Iñazio Arregi

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen orri hauetan adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

ANTZUOLA

Ibarreta arean lursail industrial berria egiteko aukera onartu dute

Gipuzkoako Diputazioak onartu egin du Ibarreta area Eraberritzeko Plan Berezia.

Antzuolako Udalak sustatu du plan hori. Ibarretako areak 20.150 metro koadroko industriarako lursaila hartzen du; horietatik 14.032 izango dira eraikigarriak; 4.348 dagoeneko eraikita daude. Gauzak horrela, Matz-Errekak eraikin berriak egiteko aukera izango du, oraingoaren ondoan: Antzuola aldera gaur egun ortuak dauden tokian eta Aristi-Zahar baserriaren ondoko lursailetan. /AINTZANE IRIZAR

OIHANA ELORZA

OÑATI

Santa Marina plazako harriak euren tokian daude berriro

Santa Marina plaza inguruan jaio eta bizi diren oñatiarrek betidanik ikusi izan dituzte hiru harri handi horiek euren auzoko plazan, eta makina bat jolas egin dute harri gainetan. 1989. urtean, plaza konpontzeko lanak hasi zituztenean, Gernikako Arbolaren ondora eraman zituzten, eta hantxe egon dira harrezkero. Santa Marinako auzokideek, ordea, harriak euren lekura ekartzeko eskatu zioten Udalari, eta harriak euren tokian daude berriro. Litekeena da garai batean idi probetan erabili izana harri horiek. Handienak, hala ere, inklinazio txiki bat du. Iparraldeko frontoietan pilota ateratzeko erabiltzen zituzten horrelako harriak, eta erabilpen hori ere izan zezakeen harri horrek. 1.500 kilo baino gehiago ditu hiru harrietan handienak. /OIHANA ELORZA.

ARETXABALETA

Basabeazpi gunea inauguratzeko ekitaldiak, gaur eta bihar

Arizmendik ikasturtea hasi badu ere, gaur eta bihar inauguratuko dute eraikin berria, Basabeazpi izena jarri diotena. Gune berriak 1.410 metro koadro ditu, guztira zortzi gela 80 ikaslerendako. Bi eta sei urte bitarteko umeek izango dute bertan ikasteko aukera. Horretaz gain, psikomotrizitate aretoa, ikerketa eta dokumentazio zentroa eta gurasoen eskola ditu, besteak beste. Gaur, egubakoitza, agintariek esku hartuko dute inaugurazioan, eta bihar herritarrendako irekiko dituzte ateak. /M.A

ARAMAIO

Zazpi orduko ibilaldia prestatu dute datorren zapaturako

Besaide egunaren ostean, Aitor Aranaren omenezko VIII. ibilaldia prestatu du Orixol Mendi Elkarteak. Datorren zapatuan izango da, hilaren 25ean. Zazpi bat orduko ibilaldia prestatu dute, inguruko mendietan. Tartean, Tellamendi, Orixol eta Ipizte mendiak zeharkatuko dituzte. Interesa dutenek egunean bertan eman beharko dute izena, 07:30ean kiroldegian. Ohi denez, ibilaldian anoapostuak izango dira. Eta ibilaldiaren ostean, dutxa hartu ahal izango da. Opari bana emango diete parte-hartzaileei. /U.M.

ARRASATE

Datorren astean, babes ofizialeko 100 etxebizitza zozketatuko dituzte

Datorren eguenean, hilak 23, babes ofizialeko 100 etxebizitza zozkatuko dituzte Uarkape pilotalekuan. 12:00etan hasiko da zozketa. Arrasateko udaletxeko ordezkariekin batera, Jaurlaritzako Etxebizitza Saileko ordezkariak izango dira zozketaren lekuko.

IA MILA LAGUN

Guztira, 907 lagunek parte hartuko dute zozketan. Bost kupotan banatuko dituzte: zailtasunak dituztenak; guraso bakarreko familiak; antzinakotasunaren arabera Etxebiden izena eman dutenak; 35 urtetik beherakoak; eta kupo orokorra. Izan ere, etxebizitzak familia eskatzaileen ezaugarrien arabera banatuko dituzte. Hala, zailtasunak dituztenen artean lau etxebizitza zozkatuko dituzte; guraso bakarreko 12 familia eskatzaileren artean hiru; antzinakotasunaren arabera 276 lagunek parte hartuko du zozketan eta haien artean 38 etxebizitza zozkatuko dituzte; 35 urtetik beherako 492 eskatzaileren artean 45 etxebizitza zozkatuko dituzte eta kupo orokorreran hamar etxebizitza daude 124 lagunen artean zozkatzeko.

ETXEBIZITZEN EZAUGARRIAK

Ehun etxebizitzak 60 metro koadro eta 90 metro koadro bitartekoak dira. Prezioak, berriz, honako hauek: 88.071,05 eta 119.407,92 euro bitartean, garajea eta trastelekua barne.

Etxebizitzak egin barik daude. Zerrajera inguruan egingo dituzte, 2006aren amaiera baino lehen. /U.M.

Zertzelada

Guztira, 907 lagunek parte hartuko dute zozketan; eskatzaileen ezaugarrien arabera, bost kupotan banatuko dituzte zozketa egiteko

BERGARA

Euskararen erabilera bultzatzeko kanpaina jarri dute abian

Euskeria, danon aukeria! lelopean, euskararekiko sentsibilizazio kanpaina jarri dute abian Udaleko Euskara batzordeak, Udal Euskaltegiak, Akulu AEK euskaltegiak eta Jardunek. Herritarren artean euskararen erabilera bultzatzea du helburu.

Kanpaina Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren barruan dagoeta helburua zera da: euskara ez dakitenak ikastera animatzea eta dakitenak egitera bultzatzea. Herriko merkatariak, gurasoak eta Jardun elkarteko bazkideen artean 2.800 gutun banatuko dituzte egunotan. Kanpainarekin bat egiteko eskatuko diete herritarrei. /E.M.

E.M.

Kanpaina eguaztenean aurkeztu zuten, prentsaurrekoan.

ESKORIATZA

Udazken Kulturala antolatu dute Udalak eta herriko hainbat elkartek

Aurten ere, Udazken Kulturala antolatu dute herriko hainbat elkartek Eskoriatzako Udalarekin batera. Adin guztiendako askotariko ekimenak antolatu dituzte. Esaterako, mendiko bizikleta ibilaldia eta Eneko Etxebarrieta abenturazalearen diapositiba emanaldia urrian; eta Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoen ikuskizun berria eta Kepa Junkera musikariaren kontzertua azaroan. Oraindik ez dute egitaraua itxi, eta ekitaldi gehiago iragarriko dituztela jakinarazi dute antolatzaileek. /ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

ELGETA

Sagardo Eguna bihar, Gazte Asanbladak antolatuta

Biharko, zapatua, Sagardo Eguna antolatu du Gazte Asanbladak. Besteak beste, patata tortilla eta mozorro lehiaketa, sagardo-dastatzea, herri afaria eta kontzertua egongo dira. Arratsaldean hasiko dira ekitaldiak plazan. 18:00etan Isastegi, Lizeaga eta Axpe sagardotegietatik ekarritako kupelak zabalduko dituzte. Edalontziak plazan erosi ahal izango dira 1,50 euroren truke. Gaueran afaria eta kontzertua egongo dira. Antolatzaileek jaian parte hartzeko dei egiten dute. /I.A.

GATZAGA

Erretiratuen Eguna bihar, zapatua, ospatuko dute gatzagarrek

Erretiratuen Eguna ospatuko dute bihar, zapatua, Gatzagan. Urtero egiten diete omenaldia herriko nagusienei. Andramari jaien barruan antolatzen dute ekimena; hala ere, behin jaiak amaituta egingo dute ospakizuna.

Txikiteoa egingo dute 13:00etan; eurekin batera, trikitilariak izango dira. Horren ondoren, guztiek batera bazkalduko dute Toki-Eder elkartean. Bazkalostean, parte-hartzaileen artean liburu sorta zozketatu eta helduenei opari bana emango diete. /Z.V.M.

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2004ko irailaren 17a

Manu Gomez

ZINEMAGILEA

“Zinema aretoak beteko dituen istorio sakona kontatzea da gakoa”

Egun 31 urte ditu Manu Gomez zinemagile arrasateararrak. Duela bost urtetik hona, Madrilen bizi da, hemen baino aukera gehiago baitaude han zineman aritzeko. Une honetan zuzendari laguntzaile gisa ari da lanean Antonio Hernandezen film batean. Berlingo jaialdian aurkeztuko dute. Esku artean beste proiektu bat dauka: bere lehen film luzea, hain zuzen ere.



MAIDER EGUES

OIHANA ELORZA

Film bat grabatzen zabiltza orain, Madrilen.

Bai, *Oculto* izena du filmak eta Antonio Hernandez da zuzendaria. Ni bere laguntzailea naiz, filmaren zuzendari laguntzailea, hain zuzen. Ondo aztertu behar duzu filma; gidoia hartu, ondo irakurri eta kalkuluak ateratzen hasi behar duzu: zenbat aste beharko dituzun grabatzeko, sekuentziak banatu, zenbat diru dagoen negoziatu produkzioarekin eta den-dena antolatu. Guztia, noski, zuzendariaren baimenarekin.

Nolako filma da?

Hiru lagunen arteko amodiozko erlazioa agertzen da. Mendekua agertzen da eta pertsonaien sentiberatasunak eta pentsatzeko erak pisu handia dute.

Egun hauetan gauez ari gara grabatzen. Aurreko astea Segovian pasatu genuen, kanpoko eszenak grabatzen, Moralejako etxe batera goaz datozen egunetan eta Madril erdiguneko kaleetan ere grabatu dugu. Hainbat eszenatoki agertuko dira.

Bederatzi aste daramatzagu grabatzen eta urriaren 2rako amaitu behar dugu. Ondoren, muntaia, soinuak nahastea, produkzio ondokoa eta beste hainbat gauza geldituko zaizkigu egiteko. Asmoa da Berlingo zinema jaialdian aurkeztea datorren martxoan.

Derrigor agertu behar du amodioak film guztietan?

Amodioa gai askotara heltzeko bidea da. Gidoiak eskatzen badu, agertuko da, baina hori oso subjektiboa da. Bizitzan bezalaxe, toki askotara heltzen da amodioa filmetan ere.

Gaur hasten da Donostiako Zinemaldia. Ikusi duzu emango dituzten filmen zerrenda?

Egia esan, ez, baina gure filmaren aurrerapena emango dutela badakit, grabatzen aritu zaizkigu-eta.

Egon izan naiz beste urte batzuetan. Zuzendu nuen *Hilarri* film laburra ere eman zuten Donostiako Zinemaldian.

Woody Allen dator aurten. Gustatzen zaizu?

Bai, horixe. Jende gutxi ezagutzen dut Woody Allen gustatzen ez zaiona. Urtero film bat grabatzen du, gutxi gorabehera, eta oso onak dira guztiak, kalitate handikoak. Hori horrela egitea oso zaila da. Gidoia idazteko denbora luzea behar duzu. Oso gizon argia eta langilea da Allen.

Niri, hala ere, hasieran egiten zituen filmak gustatzen zaizkit gehien. *Manhattan* filma, adibidez. Nahiago ditut bere lehen etapako filmak. Bere umorea ulertu behar duzu, baina niri asko gustatzen zait, oso ona dela iruditzen zait.

Euskal Aktoreen Eguna ere urtero egiten dute Donostiako Zinemaldian. Urtero, kexa bera azaltzen dute hauek: laguntzarik ez dagoela hemen zinema egiteko.

Diru asko behar da zinema egiteko, hori egia da. Laborategiak, produkzio ondokoak eta grabaketa lanek diru asko balio dute. Hala ere, ez dut uste arazoa Euskal Herrikoa bakarrik denik. Eskuina indarrean egon den urteetan, kulturak ez du laguntza eta diru askorik izan. Ez dakit hemendik aurrera gauzak aldatuko diren, baina nahiko gaizki egon da eta kulturak badu laguntzeko premia, handia, gainera.

Euskal Herrian badaude aktoreak, zuzendariak eta eszenatokiak. Dirua da arazoa film gehiago ez egiteko?

Dirua eta baliabide asko behar dira, bai, eta industria guztia Madrilen pilatzen da momentu honetan. Ni orain bost urte etorri nintzen bizitzera Madrilera.

Film komertzialak egin behar dira herriko zinema aretoetara heltzeko eta horiek jendez betetzeko?

DONOSTIAKO ZINEMALDIA

“Aurten ez naiz joango, baina grabatzen ari garen filmaren aurrerapena emango dutela badakit, grabatzen aritu zaizkigu-eta”

EUSKAL HERRIKO ZINEMAGINTZA

“Diru eta baliabide asko behar dira zinema egiteko. Hala ere, diruaren arazoa ez da Euskal Herrian bakarrik gertatzen; orain, dena Madrilen pilatzen da”

KULTURARI LAGUNTZAK

“Eskuina indarrean egon den urteetan, kulturak ez du laguntza eta diru askorik jaso. Ez dakit hemendik aurrera gauzak aldatuko diren, baina premia badu, behintzat”

ZINEMA ETA TELEBISTA

“Telebista audientziari lotuta dago, ez kalitateari. Zinemak, aldiz, dena zaintzen du, askoz lan txukunagoa egiten du. Lana ere ezberdin egiten da batean edo bestean”

“Gauzak ondo badoaz, urtea amaitu aurretik hasiko naiz nire lehen film luzearekin”

Noiz hasiko zara zure lehen film luzea grabatzen?

Gauzak ondo baldin badoaz, aurten bertan. Ez naiz data zehatza esatera ausartzen, baina urtea amaitu baino lehen hasiko garela uste dut.

Gidoia Antonio Hernandez zuzendariarekin batera idatzi dut, orain lanean ari naizen filmaren zuzendariarekin. Aktoreetako bat Pilar Lopez de Ayala izango dela badakit, eta zuzendaritza neuk egingo dut.

Eta zein istorio kontatuko duzu film horretan?

Nahiko itxura ona hartzen diot, baina ez dut aurreratu nahi.

Amodiozkoa da hori ere?

Ez, *thriller*-a izango da, eta nahiko gogorra. Eta horixe da guztia, ez noa ezer gehiago esatera.

***Hilarri*-k harrera ona izan zuen. Baduzu esperientzia.**

Bai, jaialdi askotan hartu genuen parte eta jendeari gustatu egin zitzaion.

Zinema egitea ala aretoetara heltzea da zailagoa?

Egiteak lan handia eskatzen dizu, baina zortea ere bada film bat egin ahal izatea. Banaketa bera ere oso lan zaila da. Merkatua oso handia da eta benetan zaila da banaketa ondo egitea. Marketinak zerikusi handia du, kanpainak egin behar izaten dira, eta beste hainbat oztopo gainditu.



MAIDER EGUES

Azken egun hauetan, Alejandro Amenabarren *Mar adentro* filmaz ari dira han eta hemen. Ikusi duzu?

Ez, ez, oraindik ez. Baina badut ikusteko asmoa. Lagun batzuek ikusi dute eta oso ona iruditu zaie. Veneziako zinemaldian sariak jaso ditu...

Askotan etortzen zara Arrasatera?

Ba, egia esan, ahal dudan guztietan, baina gero eta gutxiago. Madrilen egin dut bizimodua.

Zenbatean behin joaten zara zinemara?

Lanean, grabatzen nabilenean, ez naiz joaten. Ordu asko eskatzen dizu film bat grabatzeak, lan handia, egun osoan horretarako zaude, hortxe duzu burua. Asko nekatzen zara, eta libre duzun eguna etzanda egoteko eta hurrengo asteko lana antolatzeko erabiltzen duzu.

Gainontzean, bai, joaten naiz. Madrilen, gainera, askotariko film motak ikusteko aukera duzu, areto asko daude-eta.

Nola ikusten dituzu filmak? Zenbat begirekin?

Filmaz gozatzen ahalegintzen naiz. Lanbideko kontu guztiak alde batera utzi, eta filma lasai-lasai ikustea gustatzen zait. Bestela, zoratzekoa ere izango zen. Nahiko lan dut nire filmaren grabaketa antolatzen gainontzekoetan horrenbeste fijatzen ibili gabe.

Aktore asko telesailetan ikusten ditugu. Egin duzu inoiz lanik telebistarako?

Bai, telesail askotan egin dut lan. Guztiz bestelakoa da lan egiteko era. Errealizadore lanak ere egin izan ditut telesail baterako.

Telebista audientziari lotuta dago, ez kalitateari. Audientzia ona badu, kalitateak ez du axola, eta askotan *txurroak* bezala egiten dira telesailak. Zinemak, ordea, dena zaintzen du, askoz lan txukunagoa egiten da.

Jeneralean, hari-idazleak dira gehien kexatzen direnak telesailetan. Erantzukizun handia ei dute, baina dirua, berriz, gutxi.

Litekeena da, baina denetarik dago hor ere.

DANBAKA

DEBAGOIENEKO I. MUSIKA LEHIAKETA

SARI NAGUSIA
Disko bat grabatzea

IKUSLEAREN SARIA
Ikusleek eurek emango dute, SMS mezuak bidalita

IZENA EMATEKO EPEA
2004ko urriaren 7a

ZUZENEKO EMANALDIAK
Elgetako Espaloia Kafe Antzokian
Urriak 22, azaroak 5 eta 19,
abenduak 3 eta 17
Gaueko 22:30ean

FINALA
Urtarrilaren 14an
Egubakoitza, 22:30ean
Elgetako Espaloia Kafe Antzokian

OINARRIAK ETA BERRI GEHIAGO
www.goiena.net/danbaka edo 943 71 25 11

Goienkaria · Kafe Antzokia Espaloia Elgeta · Elgetako Udala · Arrasate Irratia · Goitb Goiena Telebista · Carrión música · Goiena.net Debagoieneko ataria Interneten · Goienkaria · Ganesha Tattoo Grow Shop Piercing

Gu eta gure hizkuntzak
Nós e as nosas linguas
Nosaltres i les nostres llengües





Oñatin, irailaren 18an
Egun bat hiru hizkuntzatan

Irailak 17

19:30: Olerkigintzaren inguruko solasaldia.
Elkar-Heziko ikasleak, Miquel Desclot eta Emma Couceiro poetekin. Kultura etxean. **Doan.**

Irailak 18

11:30: Kalejira, txistulari, gaitari eta trikitilariekin
12:00: Taloak, pulpoa, ribeiroa, pantumaca, sagardoa eta cava, plazan
13:00: Castellersak
19:30: Poesia irakurketa eta errezitaldia.
Harkaitz Cano, Tere Irastortza, Miquel Desclot eta Emma Couceiro. Santa Anan. **Doan**
22:30: "Irakurketa, kantuak & hibridoak" jaialdia.
Bernardo Atxaga, Ruper Ordorika, Juan Carlos Perez, Joan Piris eta gonbidatuak. Zubikoako pilotalekuan. **10 euro.**

Laixan · Oñatiko Udala · FAGOR · ULMA · Gipuzkoako Foru Aldundia Diputación Foral de Gipuzkoa · GARAIA · Euskaltel · CAJA LABORAL EUSKADIKO KUTXA

KIROL ZERBITZUEN ESKAINTZA

Mugi zaitez!

Ikasturte berrian:
aerobica • tenisa • yoga • igeriketa • aquagyma • karatea
igeriketa egokitua • edadetuendako gimnasia • kirol medikuntza
spinninga • sasoian egoteko gimnasia • jarduera fisiko egokitua





Abonatu txartelarekin **prezio murrizketak**!

KIROL ZERBITZUEN BERRIAK JASOTZEKO:

Antzuola	943 76 62 46
Aretxabaleta	943 71 26 28
Arrasate	943 77 16 77
Bergara	943 77 91 67
Elgeta	943 76 80 22
Eskoriatza	943 71 53 28
Oñati	943 71 63 75

DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA
kirol zerbitzua

Mendiko bizikleta ibilaldia, Oñatin

Joan den urteko ibilbidearekin alderatuta, domekakoa erabat ezberdina izango da

XABIER URZELAI

Domekan, 09:30ean, hasiko da Oñatiko lurraetatik pasatuko-den mendiko bizikleta martxa. Aurten bi ibilbide izango dira: motzak 29 kilometro izango ditu, eta luzeak 37 kilometro. Joan den urtean 210 lagun izan ziren martxan, eta domekarako beste horrenbeste espero dute.

Astebururako eguraldi ona iragarri dute, baina antolatzaile lanetan ibili den Juan Ignacio Igartua *Kongi*-k esan digunez, ibilbidean lokatza egongo da: "Joan den asteburuan taldeko lagun bat ibilbidea errepasatzen ibili zen, eta orduan ere lokatz handia zegoen. Joan den astean, baina, euri asko egin zuen".

IZENEMATEAK, BOST EURO

Domekarako seguruenik ibilbideko leku asko oso ondo egongo dira, baina inork ez dezala pentsa bizikleta ez duenik zikinduko. Hori, baina, ez da arazoa: "Bizikleta martxa 09:30ean hasiko da, eta izena ematerakoan bost euro ordaindu beharko dituzte. Diru horren truke, parte-hartzaileei sari txiki bat eta hamarretakoa emango dizkiegu. Ibilbidea amaitutakoan, gainera, kiroldegian dutxatu eta bizikletak garbitzeko aukera izango da". Ibilbideari dagokionez, joan den urtekoarekin alderatuta aurtengoa erabat ezberdina izango da: "Lehenengo lau kilometroak lasai egin daitezke, baina gero 200 metroko aldapa gogorra dator. Orokorrean, baina, ez dago desnibel gogorrik". Horrek ez du gura esan ibilbidea laua denik, ezta gutxiago ere: "Kiroldegitik Olatera joango gara, eta handik Urtiagaineraino igo. Aloñako magalean Udanarako bidea hartuko dugu. Han, errepidea zeharkatu eta Legazpiko gurutze azpira iritsiko gara, eta hortxe egongo dira edatekoak eta jatekoak. Gero, ibilbide motza egin gura dutenek Amiño baserrira jaitsi beharko dute, Oñatirako bidea hartzeko. Eta, ibilbide luzea aukeratzen dutenek Korostimendiraino igo eta Arranoaitzetik eta Lizargaratetik pasatakoan Oñatira jaitsiko dira".



ARTXIBOA

Ibilbidea ez da laua izango, baina ez du desnibel gogorrik.

BI URTEAN BEHIN ALDAKETA

Aurten 17 urte egingo ditu Oñatiko mendiko bizikleta martxak: "Ibilbidea bi urtean behin aldatzen dugu, beti berdina egitea aspergarria izango litzateke-eta". Ibilbidea ez dute azkeneko momentuan erabakitzen: "Mendiko pistak urte batetik bestera asko aldatzen dira, eta pinuak botatzen dituztenean pista berriak azaltzen dira. Ez da azkeneko momentuan erabakitzen dugun zerbait, urte osoa ibiltzen gara-eta nondik nora egingo dugun erabakitzen".

Kirolabur

FUTBOLA/PREFERENTEA

Ibarreko ordezkariek Liga Txapelketako hirugarren jardunaldia jokatuko dute asteburuan. Aloña Mendik Zestoaren bisita izango du (domekan, 16:30ean). Bergarak ere etxean jokatuko du, Beti Gazteren kontra (zapatuan, 17:00etan).

Etxetik kanpo jokatuko dutenak Mondra eta UDA dira. Arrasatearrek Hondarribian jokatuko dute (zapatuan, 16:30-ean). Aretxabaletarrek, berriz, Iruneraino joan beharko dute, Real Union izango dute-eta kontrario (domekan, irailak 19, 17:30ean).

MENDIA/BESAIDE EGUNA

Oraingo domekan omenduko dituzte Besaiden mendian hil diren euskal mendizaleak. Aramaioko Orixol Mendi Elkarteak antolatu du domekan egingo duten Besaide eguna, eta bertan giro paregabea egon dadin aramaioarrek osagai guztiak jarri dituzte.

11:00etan meza izango da, eta Aramaioko abesbatzak parte hartuko du. Gero, Manex Agirrek eta Iker Agirrek bertso saioa egingo dute, eta bukatzeko, Aramaioko trikitilariak ibiliko dira giroa alaitzen. Argi dago giro ezin hobea izango dela Besaiden. Badirudi eguraldiak ere lagundu egingo duela.

Zoro Zabaleta
oinetakoak

Zabaldu berria
Arrasateko Seber Altube plazan.

- **Moda:** azken joerak, gizon eta emakumeentzat.
- **Zapatak:** klasikoak eta atsedenerakoak.
- **Larruzko artikuluak:** txaketak eta poltsak.
- **Maletak.**

INOIZ EZ DA BERANDU
ESKAINTZA ONA BADA

Irailean Oporrak

Irteerak BILBOTIK

MALLORCA
8 egun / 7 gau
DEYA APTU. 2LL OCC. 4 PERTS.
OSTATUA BAKARRIK **165**

TENERIFE
8 egun / 7 gau
CHIMISAY H. ***
OSTATUA ETA GOSARIA **267**

CANCUN
11 egun / 9 gau
IMPERIAL LAGUNA H. ***
OSTATUA BAKARRIK **599**

Ihesi KOSTARA
%20 rainoko deskontua
IRAILA ETA URRIA
ESPAINIAKO KOSTALDE OSOAN

BALEARRAK ETA KANARIAK 8 egun / 7 gau

		Iraila
• MALLORCA •		
DEYA APTU. 2LL occ 4 perts	OB	165
GRAN MALLORCA H. ***	ME	250
IBEROSTAR ROYAL BEACH APTH. ***	OB	252
SOL TORDOS/MIRLOS H. ***	ME	348
DELTA H. ****	ME	397
RIU BONANZA PARK H. ****	ME	445
• MENORCA •		
SOL Y MAR APTU. 2LL occ 5 perts	OB	194
SOLITAL APTU. 1LL occ 4 perts	OB	209
BINIBECA EST. 3LL occ 3 perts	OB	276
ALMIRANTE FARRAGUT H. ***	HG	377
CAPRI H. ***	HG	448
• IBIZA •		
PISCIS PARK H. **	ME	294
ES PLA H. ***	ME	310
BARCELO PUEBLO IBIZA H. ***	ME	355
SOL IBIZA H. ****	ME	493
• TENERIFE - PUERTO DE LA CRUZ •		
CHIMISAY H. ***	HG	267
BONANZA PALACE H. ****	ME	356
SEMIRAMIS H. *****	ME	442
H10 SAN FELIPE H. ****	ME	454
• TENERIFE HEGOALDEA •		
FIESTA OASIS PARAISO H. ***	ME	337
FIESTA PARAISO FLORAL H. ***	GB	402
IBEROSTAR LAS DALIAS H. ****	ME	411
• LANZAROTE •		
LOS NARANJOS APTU. 2LL	OB	356
LAS COSTAS/LANZAROTE VILLAGE H. ***	ME	417
GREEN OASIS LOMAVERDE APTOS. 2LL	OB	425
BARCELO LANZAROTE H. ****	ME	474
IBEROSTAR COSTA CALERO H. ****	ME	549
• GRAN CANARIA - LAS PALMAS •		
ATLANTA H. ***	HG	349
CONCORDE H. ****	ME	503
• GRAN CANARIA HEGOALDEA •		
BUENAVENTURA H. ***	ME	448
GREEN OASIS MASPALOMAS APTU. 2LL	GB	489

EUROPA ETA IPAR AFRIKA

		Irailak 13 - 30
• PARIS • 4 egun / 3 gau		
BEAUSEJOUR H. **	HG	270
MIRIFIC H. ***	HG	313
• LONDRES • 4 egun / 3 gau		Irailak 13 - 30
REGENT PALACE H. TUR. SUP.	HG	284
KENSINGTON CLOSE H. 1º STD.	HG	351
• ESTAMBUL • 8 egun / gau		Irailak 20 eta 27
BIRBEY H. ***	HG	354
ROYAL H. ****	HG	413
• TUNISIA • 8 egun / 7 gau		Irailak 27
MARINA PALACE H. ****	ME	334
TUNISIA HARRIGARRIA		
HOTELA ***	MO/ME	400

Bisitatzekoak: Dougga, Cartago, Sidi Bou Said, Túnez, Kairouan, Nefta, Tozeur, Chott el Jerid, Douz, Matmata, Gabes, Djerba, El Djem, Sousse y Skanes.

		Irailak 20 eta 27
• EGIPTO •		
EGIPTO - HARMAKIS 8 egun / 7 gau		
HOTELA LUX. STD.	MO/HG	555
4 GAU ITSAS BIDAIAN NILOAN ETA 3 GAU KAIRON		
EGIPTO - AMON RA 12 egun / 11 gau		
HOTELA LUJO STD	MO/HG	688
7 GAU ITSAS BIDAIAN NILOAN ETA 4 GAU KAIRON		

IBILBIDE LUZEKOAK

		Irailak 21
• ZANZIBAR • 9 egun / 7 gau		
SEA CLUB KIWENGWA H. 1ª SUP.	GB	850
• PUERTO RICO • 6 egun / 4 gau		Irailak 1 - 30
PARADISUS PUERTO RICO H. LUX.	GB	1.468
• PAISAJES DE COSTA RICA • 9 egun / 7 gau		Irailak 11 - 30
BARCELO RINCÓN DEL VALLE H. ***	MO/HG	1.263

Bi gau Tortuguero parke nazionalean, bisitatzekoak: parkea eta Arenal eta Poas sumendiak. Bost gaueko egonaldia San Josen.

ZURE OPORRENGATIK EGIN DEZAKEGUN GUZTIA EGIN EGITEN DUGU

Irteerak Bilbotik, Egiptokoak, Karibekoak eta ibilbide luzekoak izan ezik (horiek Madrildik). Prezioak pertsonako logela bikoitzean eta aurretik aipatutako erregimenean bestelakorik aipatzen ez bada, iraileko irteera konkretuentzat bakarrik. Informazio zabalagoa gure bulegoetan. Karburantearen igoera, tasak, bisa eta gestio datuak ez daude barne. Janari-erregimena: OB: Ostatua Bakarrik; ME: Mantenu Erdia; HG: Hotela eta gosaria, GB: Guztia Barne, MO: Mantenu osoa. Prezio zuzenak tipografiako akatsik egon ezean. **ESERLEKU MUGATUAK.**

KARIBEA 9 egun / 7 gau

		Iraila
DOMINIKAR ERREPUBLIKA 9 egun / 7 gau		
• PUNTA CANA •		
BARCELO BÁVARO VILLAGE H. ****	GB	650
RIU MELAO H. ****	GB	690
NATURA PARK H. *****	GB	715
FIESTA BEACH H. LUX.	GB	799
CLUB RIU BAMBÚ H. *****	GB	815
CATALONIA BÁVARO BEACH H. *****	GB	850
IBEROSTAR DOMINICANA H. LUX.	GB	899
FIESTA PALACE (Junior Suite) H. *****	GB	992
• PUERTO PLATA •		
RIU MAMBO H. *****	GB	660
• BAYAHIBE •		
IBEROSTAR HACIENDA DOMINICUS H. LUJO	GB	950
MEXIKO 11 egun / 9 gau		
• CANCUN •		
IMPERIAL LAGUNA H. ***	OB	599
IMPERIAL LAS PERLAS H. ***	GB	680
MELIÁ TURQUESA H. *****	GB	980
• RIVIERA MAYA •		
CLUB CARACOL VILLAGE H. ****	GB	780
RIU LUPITA H. *****	GB	799
CLUB MAEVA H. ****	GB	850
OCC. FLAMENCO XCARET H. *****	GB	1.000
BARCELÓ MAYA BEACH H. *****	GB	1.050

PROMOZIO BEREZIA
2 gau 1en prezioan
Asteburuan, gosariak doan
Hotel hauetan:
Sol Meliá HOTELS & RESORTS
Penintsulan, Balearretan, Kanarietan eta Europan.
Promozioaren baldintzak kontsultatu. Balioa: Irailaren 30era arte.

902 108 108
viajesiberia.com

VIAJES IBERIA

PR€ZIOA BAINO ASKOZ ERE GEHIAGO...

BAL-001-MM

EIBAR-GASTEIZ

Egubakoitza / 2004ko irailaren 17a / GOIENKARIAren gehigarri berezia

AUTOBIDEA MARTXA ONEAN

AZALA: MAITENA ARANA/ ARGAZKIA: ENEKO AZKARATE

EIBAR-GASTEIZ
Egubakoitza / 2004ko irailaren 17a

AUTOBIDEAREN MARTXA

Oraingo astean ekin diote Eskoriatza-Arlaban zatiari

AINTZANE IRIZAR

Orain dela bost urte hasi ziren Eibar-Gasteiz autobidea eraikitzen, eta uztailaren 29an zabaldu zuten bigarren zatia. Gauzak horrela, autobideak izango dituen 46,2 kilometroetatik 11,6 kilometro zabalik daude dagoeneko.

Iazko abenduan zabaldu zuten AP1 autobidearen lehendabiziko zatia, Maltzaga eta Bergara iparra bitartekoa, hain zuzen ere; 7,2 kilometro ditu zati horrek. Pasa den uztailaren 29an, berriz, bigarren zatia inauguratu zuten, Bergara iparra eta Bergara hegoa lotzen dituena; bigarren zati honek 4,4 kilometroko luzera dauka. Gauzak horrela, 11,6 kilometroko bidea egin dezakegu AP1 autobidean.

TUNEL BAKARRA ETA HIRU ZUBIBIDE

Esan bezala, 4,4 kilometroko luzera dauka Bergara iparra Bergara hegoarekin lotzen duen zatiak. Tunel bakarra dago zati horretan, San Martzialgoa, hain zuzen ere, 1,4 kilometrokoa. Bestalde, bi zubibide zeharkatu behar dira: bata, Ipiñarrin, Ola auzoan, 640 metrokoa; bestea, berriz, Uberara doan errepidearen gainetik doana, 260 metrokoa.

ORDAINLEKU BERRIA, IPIÑARRIN

Bigarren zati honen inaugurazioarekin, Ipiñarriko ordainlekua ere zabaldu dute. Ordainleku hori AP1 autobideak Beasain-Durango autobiarekin bat egiten duen lekuan dago. Horrela, Ondartzako ordainlekuko sarreran eta irteeran zirkulazioa txikitu egin da; izan ere, Arrasate aldetik datozen ibilgailuek Bergarako industrialdearen ondoan, Telleriako biribilgunetik gora, hartu ahal izango dute AP1 autobidea. Antzuola aldetik datozenek, berriz, Bergarara jaitsi beharrean, zuzen jarraitu besterik ez dute Ipiñarriko ordainlekutik pasatuta autobidean sartzeko.

Bidesariei dagokionean, berriz, honakoak dira: ibilgailu arinen kasuan, Eibar eta Bergara hegoa bitarteko bidea egiten dutenek, 1,30 euro ordaindu beharko dute Ipiñarrin. Ibilgailu astunek, berriz, 2,25 euro ordaindu beharko dute, eta bigarren mailako ibilgailu astunek, 2,55 euro.

Aipatzekoa da, bestalde, autobidera Bergara hegotik, Ipiñarritik, sartzen diren ibilgailuek ez dutela Ondartzan irteteko aukerarik. Hortaz, autobide osoa amaituta dagoenean, Gasteiz aldetik Eibarko norabidean datozenek, Bergarara joan nahi badute, Ipiñarriko ordainlekuan irten beharko dute. Bestetik, Ondartzako sarreratik Eibar aldera bakarrik sartu ahal izango gara; hots, autobide osoa zabalik dagoenean, Ipiñarrin bakarrik izango dugu autobidera Gasteizerako norabidean sartzeko aukera.

77 MILIOIKO AURREKONTUA

Bergara iparra eta hegoa lotzen dituen autobide zatiko lanek 77 milioiko aurrekontua izan dute. Eibar-Gasteiz autobide osoaren aurrekontua 624 milioi eurokoa da; horietatik 216 milioi Maltzaga eta Bergara hegoa zatiari dagozkio. AP1 autobidea obra zaila da; gure ibarra estua eta malkartsua denez, tunel eta zubibide ugari ditu autobideak eta horrek garestitu egiten ditu lanak. Zabalik dauden 11,6 kilometroetatik 5,9 kilometro tunelei dagozkie; 1,6 kilometro, berriz, zubibideei. Horra hor beste datu bat: AP1 autobidearen Gipuzkoako zatiaren heren bat lur azpitik doa; ia 32 kilometro izango ditu Gipuzkoan autobideak, eta horietatik 10,5 kilometro tunelak izango dira. Zubibideek, berriz, 4,9 kilometro hartuko dituzte.

BERGARA-ARRASATE, HURRENGO ZATIA

Zabalduko duten hurrengo autobide zatia Bergara hegoa Arrasate iparrarekin lotuko duena izango da. Orain dela ia hiru urte ekin zieten zati hori eraikitzeko lanei, eta Diputazioko arduradunen arabera, 2005eko udan irekiko dute. 3,5 kilometroko luzera izango du zati horrek, eta 71 milioi euroko aurrekontua.

Gipuzkoan eraikiko dituzten beste bi zatiak izango dira Arrasate eta Eskoriatza artekoa eta Eskoriatza eta Arlaban artekoa. Eskoriatza eta Arlaban arteko zatiaren lanak orain dela gutxi esleitu dituzte eta oraingo astean ekin diete lanei. Arrasate eta Eskoriatza arteko zatiarenak,

Uztailaren 29an zabaldu zuten Bergara iparra eta hegoa lotzen dituen zatia

Gipuzkoan autobideak izango dituen 32 kilometroetatik ia 11 tunelei dagozkie

Araban 14,2 kilometro izango ditu AP1ek; maiatzean hasi zituzten lanak



A.I.

Datorren urteko udan zabalduko dute Bergara hegoa eta Arrasate ipar arteko zatia.

berriz, 2005ean hasiko dituzte.

Arrasate eta Eskoriatza arteko zatia 6,3 kilometrokoa izango da eta 90 milioi euroko aurrekontua dauka. Eskoriatza eta Arlaban artekoa da zatirik luzeena, 10,4 kilometrorekin; Gipuzkoako azkeneko zati hau, luzeena izateaz gain, konplikatuena ere bada, eta 192 milioi euroko aurrekontua dauka.

ARABAN ERE HASI DIRA

Maiatzean ekin zieten AP1 autobideko lanei Araban. 14,3 kilometro izango ditu autobideak Araban eta bi fasetan eraikiko dute: bata mugatik Lukuraino joango da eta 7,5 kilometro izango ditu; besteak, berriz, 6,8 kilometro izango ditu eta Lukutik Etxabarri-Ibiñaraino joango da.

AP1 autobideaz berba egiten dugunean Eibar-Gasteiz izena erabiltzen dugun arren, autobide hau Etxabarri-Ibiñaraino joango da, eta hantxe, N-622 errepidea hartu beharko dugu Arabako hiriburura iristeko.

Oraingoz, Arlabango tunelaren hegoaldeko ahoa egongo den tokiraino iritsi ahal izateko bidea egin du Arabako Diputazioak. Arlabango tunelak izango dituen 3,3 kilometroetatik 1.300 metro Araban egongo diren arren, Gipuzkoako Diputazioa arduratuko da tunela eraikitzeaz; 1.300 metro horien lanen kostua, baina, Arabako Foru Aldundiak hartuko du bere gain. Gipuzkoako Diputazioa uztailean hasi zen tunela eraikitzen, Araba aldetik.

Lukutik Etxabarri-Ibiñara doan zatiaren proiektua idazten dihardute oraindik. Diputazioko arduradunen esanetan, 2005. urte bukaeran bigarren faseko lanak esleitzea espero dute. 2007. urte amaierarako autobide osoa amaituta egongo litzateke.

Arlabango tunela, 3,3 kilometrorekin, Euskal Herriko luzeena izango da

AINTZANE IRIZAR

Arlabango tunelak 3.377 metro izango ditu. Luzera horrekin, Euskal Herriko tunelik luzeena izango da. 2007. urtean amaituko dituzte tunel hori eraikitzeko lanak.

Atzo, eguena, Eskoriatza eta Arlaban arteko autobide zatiaren lehen harria ezarri zuten Eskoriatzan, Marin auzoan, hain zuzen ere. Araba aldetik, uztailean hasi ziren tunela zulatzen; Eskoriatza aldetik, berriz, oraingo astean bertan hasi dituzte zulatze lanak. 34 hilabete beharko dituzte tunela egiteko bakarrik.

Eskoriatza eta Arlaban arteko zatia da eraikitzen zailenetakoa. Horren arrazoietako bat da Arlabango tunela, besteak beste, oso luzea izango dela: 3,3 kilometro izango ditu. Eraikitzen dutenean, Euskal Herriko tunelik luzeena izango da. Orain arte, Belatekoa (Nafarroa) da luzeena, ia hiru kilometrorekin.

Luzea izateaz gain, zailtasun tekniko handiko lana da Arlabango tunelarena, ingeniaritza lan oso garrantzitsua da eta.

Autobideko tunel guztiek segurtasun neurri aurreratuenak dituzten arren, Arlabango tunelaren kasua berezia izango da: bere neurrira egindako segurtasun plana izango du tunel horrek, Diputazioko iturrien arabera.

UNAI SALABERRIA

Marinen, Arlabango tunelaren ahoak, argazkian zehaztutako tokian joango dira.

Arlabango tunelak bere neurrira egindako segurtasun plana izango du

Tunela egiteko bakarrik 34 hilabete beharko dituzte; 2007an bukatuko dute

Arlabango tunelarekin, autobideak Gipuzkoa eta Araba lotuko ditu; tunel horrek bi lurraldeen arteko muga egiten du. Tunelak dituen 3.377 metroetatik 1.300 Arabako lurretan dauden arren, Gipuzkoako Diputazioa arduratuko da tunela eraikitzeaz. Arabako Diputazioak, baina, zati horri dagokiona ordainduko dio Gipuzkoako Diputazioari.

ESKORIATZA-ARLABAN, GARESTIENA

Arlabango tunela tartean izanda eta autobideko zati luzeena izanda, Eskoriatza eta Arlaban lotuko dituen tartea da aurrekontu handiena duen autobide zatia: 192 milioi euroko aurrekontua du, hain zuzen ere. Arlabango tunelaz gain, hainbat arrazoi daude tarte hori garestiena izateko: alde batetik, kontuan hartu behar da tarte luzeena ere badela, 10,4 kilometrorekin; bestetik, Arlabangoa ez da egin beharko duten tunel bakarra: Zarimutzekoa ere egongo da, 420 metrokoa.

Tunelez gain, hainbat zubibide ere izango ditu Eskoriatza eta Arlaban arteko autobide zatiak, bost, hain zuzen ere: Maringoa, 548 metrokoa; Zarimutzekoa (468 m), Mazmelakoa (404 m), Uztarretakoa (240 m) eta Apotzagakoa (160 m).

LARREATEGIKO ZUBIBIDEA, 2005EAN

Iazko abenduan autobidearen lehenengo zatia zabaldu zutenean, Larreategiko zubibide bikoitzeko zubietako bat ezin izan zuten zirkulazioarendako ireki; izan ere, 2003ko urtarrilean, kalte handiak izan zituen. Bi zubi paralelok osatzen dute Larreategiko zubibidea; istripua gertatu zenean, zubietako baten egiturako hiru adabaki bere lekutik irten ziren eta zubi zatia zintzilik geratu zen. Oraingo astean bertan zubi zati hori berriro bere lekuan jarri dute; lanik zailena, hortaz, egin dute, eta Diputazioko arduradunek jakinarazi digutenez, 2005eko otsailean bukatuko dituzte lanok. Hasiera baten azaroan zabaltzekoak ziren arren, eraikuntzako grebagatik atzeratu egin dira lanak.



ISUN HANDIAK ATZERAPENENGATIK

Zabalik dauden autobide zatietako lanek hainbat atzerapen izan zituzten. Ohikoa da, gainera, errepideetako eraikitze lanetan atzerapenak izatea. Gipuzkoako Diputazioko eta Bidegiko arduradunak kezkatuta daude kontu honekin, eta neurriak hartzeko erabakia hartu dute. Horrela, orain esleitzen dituzten autobide zatietako lanetan, isunak jarriko dizkiete autobideko lanetan atzerapenak dituzten enpresa eraikitzaileei. Atzeratzen diren egun bakoitzeko 200.000 euroko (34 milioi pezeta) isuna, hain zuzen ere, izango dute enpresek. Neurri horrekin, aurrez zehaztutako epeak beteko direla bermatu nahi dute Gipuzkoako Diputazioko arduradunek.

ANGIOZARKO LUBETA

Autobideak Angiozarko bailara zeharkatzeko, zubibidea egin beharrean, lubeta bat eraiki zuten. Bi milioi metro kubiko eta 70 metroko altuera ditu lubeta horrek. Hori eraikitzeko, autobidearen zati honetan eta beste zati batzuetan hondeatutako lurra erabili dute, bi milioi metro kubiko, guztira. Bergara iparra-Bergara hegoa zatia eraikitzeko, milioi bat metro kubiko lur kendu behar izan dute. Gainera, Labegaraietako hondakinen isurtegia tratatu eta zigilatu egin dute. Aipatzekoa da, bestalde, Angiozarrerako errepidea lubeta horren azpitik pasatzen dela orain. Tunel artifizial bat eraiki dute Angiozarrera joateko; 140 metroko luzera dauka tunel horrek.

EIBAR-GASTEIZ
Egubakoitza / 2004ko irailaren 17a

TUNELAK

Bergaratik kontrolatzen dira Gipuzkoako tunel gehienak

AINTZANE IRIZAR

Eibar-Gasteiz autobideak guztira izango dituen 46 kilometroetatik 10,5 tunelei dagozkie. Tunel horietan segurtasun neurri bereziak jarri dituzte; Ondartzatik zaintzen dituzte AP1 eta AP8 autobideetako tunel gehienak.

Autobide osoa amaitzen dutenean, hamasei tunel izango ditu, guztira. Horietako bi, gainera, bereziki luzeak dira: Gallastegikoak, Maltzaga eta Bergara iparra arteko zatian dagoenak, 2,4 kilometro ditu. Arlabangoak, berriz, 3,3 kilometro izango ditu eta Euskal Herriko luzeena izango da.

Tunelek protagonismo berezia hartzen dute, autobideak izango dituen 46 kilometroetatik 10,5 kilometro tunelei dagozkie eta.

Segurtasunak ere garrantzi handia du; horrela, Ondartzako kontrolgunetik zaintzen dituzte AP1 autobideko Gipuzkoako tunel guztiak. Baita AP8 autobideko Gipuzkoako tunelak ere.

SEGURTASUN NEURRI UGARI

Autobideak neurri modernoenak erabiliko ditu segurtasuna bermatzeko. Segurtasun sistema guztiak zaintzeko, berriz, kontrolgunea dago Ondartza baserrian, Bergaran. AP1 eta AP8 autobidean dauden tunel guztiak kontrolatzen dute Bergaratik.

ARTXIBOA

Argidun seinale aldakorrak jarri dituzte, bai tuneletan, baita errepidean zehar ere.

Ondartzatik zaintzen dituzte AP1 eta AP8 autobideetako tunel guztiak

250 metrotik 250 metrora ebakuazio galeriak daude; sarreretan, tunelerako sarrera ixteko barrerak jarri dituzte.

Bestalde, komunikazio sistema aurreratuak ere jarri dituzte tuneletarako. Batetik, telebista zirkuitu itxia jarri dute; 150 metrotik 150

Telebista zirkuitu itxia eta megafonia sistema jarri dituzte tuneletan

metrora kamerak daude tuneletan, eta Ondartzako kontrolgunean tuneletan gertatzen den guztia ikusten dute. Megafonia sistemak ere badaude, arazoren bat sortuz gero, gidariei abisuak emateko. Bestalde, tunel barrutik laguntza eskatzeko SOS zutoinak daude.

IKASTAUNDIKO TUNELA AURRERA DOA

Aurreko asteko egubakoitzean, hilak 10, Ikastaundiko tuneleko bi aldeek bat egin zuten; goizeko hamaiketan egin zuten azkeneko leherketa hantxe. Bergara hegotik Arrasate iparrera doan autobide zatiari dagokio tunel hori; Elorregi auzoan hasi eta Arrasateraino doa tunela, eta 1,2 kilometro dauzka. Noranzko bakoitzerako tunel bat dihardute eraikitzen, eta horietako baten bakarrik bukatu dituzte zulaketa lanak.

SAN MARTZIALGO TUNELA

Bergara iparra eta Bergara hegoa lotzen dituen autobide zatian, aurreko zatian erabili ez zituzten segurtasun neurriak ere erabili dituzte. San Martzialgo tunelean, goian aipatutako sistema guztiez gain, nitrogeno oxidoa neurtzeko aparatuak daude. Aipatzekoa da, bestalde, tunel hori aprobetxatu dutela merkatuan orain dela gutxi agertu diren bi anemometro probatzeko; haizearen abiadura eta norabidea neurtzeko aparatuak dira anemometroak.

TUNELAK ERAIKITZEKO, LEHERKETAK

Goma 2 motako lehergaia erabiltzen dute tunelak eraikitzeko. Ikastaundiko tuneleko lanen arduradunak azaldu digunez, 400 bat kilo lehergai erabiltzen dute leherketa bakoitza egiteko; hiru bat metro aurreratzen dute leherketa bakoitzeko eta astero, batez beste, 25 metro aurreratzen dute. Hortaz, tuneleko kilometro bat egiteko 133 bat tona lehergai behar da. Argazkian ikus daitekeen makinak lehergaia sartzeko zuloak egiten ditu haitzean.

■ ELKARRIZKETA: NESTOR ARANA / BIDEGIKO ZUZENDARI NAGUSIA

“Jendea gurera erakartzeko aukera ona da autobidea”

AINTZANE IRIZAR

Azkeneko urteotan Diputazioko Errepideetako zuzendaria izan ondoren, Bidegiko zuzendari nagusia dugu orain dela hilabete batzuetatik. Debagoiena ondo ezagutzen du Nestorrek: oñatiarra da jaiotzez, eta Arrasaten bizi da ezkondu zenetik.

GOIENKARIA

Bidegiko zuzendari nagusia zaitugu; azalduko zeniguke zer den Bidegi?

Diputazioak sortutako enpresa publiko bat da; kapitala, ehuneko ehunean, Diputazioarena da. Helburu batekin sortu zen Bidegi: AP1 eta AP8 autobideak ustiatzeko eta zaintzeko eta AP1 eratzeko. Horrek esan nahi du Bidegi arduratzen dela gaur egun AP1 autobidea eraikitzeko lanak kudeatzeaz ere. Orain arte Diputazioak esleitu ditu AP1 eraikitzeko lanak; Arrasatetik aurrerako autobide zatien lanak, baina, Bidegik esleitu eta koordinatuko ditu.

Eta Bidelan zer da?

Bidegik lehiaketara atera zituen autobideko bidesaria kobratu, mantentze lanak egin eta autobidea zaintzeko lanak, eta Bidelanek lortu zuen. Dragados, Viuda de Sainz eta Asfaltos Naturales de Campezo enpresek aldi baterako osatutako enpresa da Bidelan.

Bederatzi hilabete pasatu dira dagoeneko AP1 autobideko lehen zatia zabaldu zenutenetik. Erabiltzaileen aldetik zein iritzi jaso dituzue?

Oso ondo egindako autobidea dela esaten digute erabiltzaileek. Gainera, jendeak igarri du abantaila handia dela autobidea Bergararaino iristea.

Eta zuek ze balorazio egiten duzue?

Ona; ibilgailu kopuruari dagokionez, gure aurreikuspenak %10ean gainditu ditugu. Egunero 7.000 ibilgailu inguruk erabiltzen dute autobidea. Bestetik, autobidea oso segurua dela ikusi dugu, istripu gutxi egon da hilabeteotan.

Zela finantzatzen da AP1 bezalako obra handi bat?

Oso autobide garestia da, eta ezinezkoa da obra osoa bidesarien bitartez finantzatzea. Erdia Diputazioaren aurrekontuetatik ordainduko da; beste erdia ordaintzeko, berriz, Inbertsio Banku Europarrari eskatuko diogu mailegua. Gero, diru hori bidesarien bitartez finantzatuko dugu. Guk aurreikuspen batzuk egin ditugu, kalkulatu dugu gutxi gorabehera egunean zenbat ibilgailu ibiliko diren eta zenbat diru jasoko dugun bidesarietatik; horrela, 30 urtean AP1 finantzatuko dugula espero dugu. AP8 autobidearen berritze lanak ere garestiak dira.

Ze lan egingo dituzue autobide horretan?

Irunen hasi eta Maltzagarainо hirugarren erraila egingo dugu; bestalde, Donostia zeharkatzen duen bide berria ere egingo dugu. Aste batzuk barru bukatuta egongo dira horien proiektuak eta datorren urte hasieran lanekin hasteko moduan egongo garela espero dut.

“Enpresa eraikitzaileek, atzerapenengatik, eguneko 200.000 euroko isuna dute”

Enpresa ugarik dihardu AP1 autobidea eraikitzeko lanetan. Zela koordinatzen duzue hori guztia?

Lehenengo, eraikuntza proiektua egiten da; gero, lanak lehiaketara atera eta lanok esleitu egiten ditugu. Bestalde, Bidegin badugu zuzendari tekniko bat, eta, gainera, enpresa bat kontratatzen dugu, lanak bertatik bertara zuzenduko duena. Ingeniari talde batek jarduten du horretan lanean eta eurekin ia astero egiten ditugu batzarrak, lanei jarraipen zehatza egiteko.

Aipatzekoa da, honekin lotuta, garrantzia handia eman diogula epeak betetzeari. Horrela, atzeratzen diren egun bakoitzeko 200.000 euroko isuna ezarriko diegu enpresa eraikitzaileei.

“Aurreikuspenak %10ean gainditu ditugu, ibilgailu kopuruari dagokionez”

Autobidearen zein zatik eman dizue buruhauste handiena?

Batetik, Larreategiko zubi bideak; dena dela, aurreko astean bukatu zituzten lanik zailenak, eta espero dugu datorren urteko otsailean zabaltzea. Bestalde, Arlabango tunela ere lan konplikatua eta luzea da. Tunela egiteko bakarrik 34 hilabete behar izango ditugu. Araba aldetik uztailean hasi ginen zulatze lanetan; Eskoriatza aldetik, berriz, oraingo astean bertan hasi gara.

“Oso ondo egindako autobidea dela esaten digute erabiltzaileek”

Ze irizpideren arabera ezartzen dituzue bidesariak?

Lehen esan bezala, urtean zenbat ibilgailu pasatuko diren aurreikuspenak egiten ditugu eta obra 30 urtean finantzatu ahal izateko moduko bidesariak ezartzen ditugu. Horixe da gure irizpidea.

Espainiako Estatuko eta Europako autobidetako bidesariekin alderatuta, garestiagoa edo merkeagoa da AP1?

Pixka bat merkeagoa; kontuan hartu behar da autobide asko enpresa pribatuek kudeatzen dituztela, eta euren helburua dela dirua ateratzea. Gure helburu bakarra bidesariarekin, obra finantzatzea da.

Autobideek doanekoak izan behar dutela diotenen aurrean, zer erantzungo zenuke?

AP8 autobidearen kasuan, esaterako, doan izango litzateke, guk inbertsiorik egingo ez bagenu. AP8an egin behar ditugun berrikuntza lanek 600 milioi euroko aurrekontua dute: diru hori denon artean jartzen dugu edo ez dago berrikuntzarik egiterik, hori oso argi dago.

Laster TAG berria jarriko duzue martxan. Zein onura ekarriko dizkigu?

Orain arteko TAG berriarekin alderatuta, sistema berria oso azkarra da; teorian, 40 km/h. abiaduran pasatu ahal izango gara ordainlekutik. Bestalde, Espainiako Estatuko autobide gehienetarako ere balio izango digu TAG berriak; aurrerago, berriz, Europa osora hedatuko da sistema hori.

Zer suposatuko du autobide honek Debagoienarendako?

Erronka handia da guretako; ondorio oso onak izan ditzake, baina, baita negatiboak ere. Izan ere, posible izango da, adibidez, Arrasaten lan egin eta Gasteizen bizi izatea, horrek dakarrenarekin. Beldur pixka bat ematen dit, jende askok ez ote duen Gasteizera alde egingo bizi izatera; Arrasatetik Gasteizera 15 minutuan iritsi ahal izango gara. Bestetik, jendea Debagoienera erakartzeko bidea ere ematen digu eta hori oso garrantzitsua da.

Tranbiaren proiektua zela ikusten duzu?

Oso ondo. Jakin dudanez, lau urte barru eginda egongo da ibilbide nagusia. Ibarreko herriak lotzeko bide ezin egokiagoa iruditzen zait tranbia egitea.

EIBAR-GASTEIZ
Egubakoitza / 2004ko irailaren 17a

BEDERATZI HILABETE ZABALIK

Ibilgailu kopuruari buruzko aurreikuspenak, gaindituta

AINTZANE IRIZAR

Iazko abenduan zabaldu zuten autobidearen lehenengo zatia; bederatzi hilabete pasatu dira dagoeneko, eta geroago eta gehiago dira autobidea erabiltzen duten gidariak. Bataz beste, egunero, 7.000 ibilgailu ibiltzen dira Eibar eta Bergara artean.



A.I.

Goizeko 07:30etik 08:30era eta arratsaldeko 17:30etik 18:30era egoten da zirkulazio handien autobidean.

AP1 autobidearen helburua da debagoiendarroi azpiegitura modernoa eta erosoa eskaintzea.

Ia bederatzi hilabete pasatu dira Maltzaga eta Bergara iparra arteko zatia zabaldu zutenetik. Ordutik hona Eibar eta Bergara arteko zirkulazioa, GI-627 errepidekoa, asko arindu da. Kontuan hartu behar da autobidea egin arte 10.000 ibilgailuk erabiltzen zutela errepide hori; horietatik 7.000k autobidea erabiltzen dute gaur egun. Gainera, 7.000 horietatik gehienek zirkulazio handieneko orduetan hartzen dute autobidea; goizetan, 07:30etik eta 08:30era eta arratsaldeetan, 17:30etik 18:30era egoten da zirkulazio handien AP1 autobidean.

Autobidea kudeatzen duen Bidegi enpresako arduradunen esanetan, euren aurreikuspenak gainditu egin dituzte, ibilgailu kopuruari dagokionez: uste zuten baino %10 ibilgailu gehiagok erabiltzen du autobidea.

Uztail bukaeran bigarren zatia inauguratu zuten, Bergara iparra eta Bergara hegoa lotzen dituena. Zati hori zabaltzeak, baina, ez du oraingoz ibilgailu kopurua askorik areagotu. Izan ere, nahiz eta errepide zaharretako zirkulazioa asko arindu duen, autobideak ez du benetako funtzioa beteko, ez du benetako zentzurik izango, guztiz amaitzen duten arte. Diputazioaren aurreikuspena da zati berriak ireki ahala erabiltzaile kopurua handitzen joatea.

Bestalde, Bidegiko arduradunek jakinarazi digutenez, erabiltzaileen aldetik jaso dituzten iritziak oso positiboak izan dira; "oso ondo egindako autobidea" dela diote gehienek.

GI-627ko 10.000 erabiltzaileetatik 7.000k autobidea hartzen dute orain

Istripu gutxi izan da autobidean; istripu larriak bi besterik ez dira gertatu

Erabiltzaile gehienek diote autobidea "oso ondo eginda" dagoela

ISTRIPU GUTXI

Autobide moderno eta ingurumena errespetatzen duena izateaz gain, segurtasunari berebiziko garrantzia eman diote; eta horrek eman ditu bere fruituak. Izan ere, zabalik daramatzan bederatzi hilabeteotan oso istripu gutxi egon da AP1 autobidean. Istripu larriak bi besterik ez dira izan, biak ere tuneletan. Gainera, Ondartzako kontrolgunetik, telebista zirkuitu itxiari esker, tuneletan gertatzen den guztia ikusten dutenez, berehala jartzen dituzte martxan segurtasun eta laguntza neurriak.

TAG SISTEMA BERRIA LASTER JARRIKO DUTE

Bidesaria automatikoki ordaindu ahal izateko sistema bat da TAG deitzen dena. Autobidea egunero edo sarritan erabiltzen dutenendako, batez ere, aukera ona da bidesaria sistema horren bitartez ordaintzea. TAG sistemak eskaintzen digun abantaila nagusia da ordainlekuan geratu beharrik ez dugula, ez sartzerakoan txartela hartzeko, ez eta irteterakoan ordaintzeko ere. Bidegi enpresak kudeatzen du AP1 autobidea, eta enpresa horrekin akordioak sinatuta dauzkaten banketxeetan lor ditzakegu TAG sistemak. Orain arte Kutxan eta Euskadiko Kutxan egon dira eskuragarri. Aurrerantzean, Banco Guipuzcoano banketxean ere lortu ahal izango ditugu.

Bestalde, laster TAG berri bat jarriko dute martxan, oraingoaren antzerakoa, baina modernoagoa. T Bidea (Via T) deitzen diote. Diputazioko iturrien arabera, aste batzuk barru jarriko dute martxan T Bidea. TAG berriarekin azkarrago igaro gaitezke ordainlekutik; gainera, Espainiako Estatuko autobide gehienetan ere erabili ahal izango dugu. Aurrera begira, berriz, Europan sistema estandarra bihurtuko dela espero dute autobideko arduradunek; eta, horrela, pixkanaka-pixkanaka Europa osoan hedatuko da sistema hori eta Europako autobide gehienetan ordaindu ahal izango ditugu bidesariak T Bidea erabilita.

IRITZIAK

Zer onura ekarri digu autobideak?

VALENTIN GASTON/URRETXU.

Ez dut askotan erabili; behin edo birritan, besterik ez. Asturiasera joaten gara, noizean behin, eta Bergaran autobidea hartu eta Bilboraino joaten gara. Alde handia dago lehendik, baina Beasain-Durango bukatzeko gogoz gaude; orduan aldea askoz nabarmenagoa izango da.



JESUS LORENZO/ANDOAIN

Denbora luzea aurrezten dut. Garraiolaria naiz eta askotan erabiltzen dut AP1 autobidea. Oso ondo eginda dago; alde ederra dago, AP8 autobideko hainbat zatirekin alderatuta! Dena dela, akats bat ere badauka, nire ustez: kamioiendako TAG ordainlekurik ez dago.



JOSE MANUEL MARTIN/BEASAIN.

Zirkulazioa saihesten dut eta denbora aurreztu; merezi du ordaintzea, izan ere, azken baten, lasaitasuna eta denbora aurreztea ordaintzen dituzu. Hemendik Eibarrera joateko, biribilgune asko dago, eta ordu jakin batzuetan, trafiko handia egoten da. Askotan joan behar izaten dut Bilbora kamioiarekin, eta alde handia nabaritzen dut. Beasaingoa naiz, eta Deskarga jaisten dut, autobidea hartzen dut eta Bilboraino joaten naiz autobidez, lehenengo berri honetatik eta gero AP8tik.

ELENA JUARISTI/AZPEITIA.

Ordu jakin batzuetan, batez ere, aldea dago autobidea hartuz gero. Azpeitiarra naiz, eta alaba Aretxabaletan bizi denez, askotan joaten naiz hura bisitatzera. Elgoibarren hartzen dut autobidea eta Bergararaino etortzen naiz. Zati berritik gaur pasatu naiz lehen aldiz, eta oso ondo dago.



JOSE IGNACIO UBERA/EIBAR.

Denbora luzea aurrezten dut. Eibarren bizi naiz, eta Zumarragara emaztearen gurasoak bisitatzera joateko hartzen dugu autobidea. Orain, zortzi minutuan iristen gara Eibartik Bergarara. Dena dela, Beasain-Durango errepidea noiz egingo duten zain gaude; Deskargako zatia egiten dutenean igarriko dugu benetan aldea.

GERMAN LETE/BERGARA.

Arrandegia daukat, eta egunero joaten naiz Bilbora, MercaBilbaora, hain zuzen ere, arrain freskoa erostera. Lehengo aldean, autobidea hartuta, askoz azkarrago iristen naiz orain Bilbora, ordu erdi inguru behar izaten dut. Garestiago ateratzen zait bidaia, ordainsariagatik, baina merezi du; izan ere, gauez joaten naiz, oso goiz esnatu behar izaten dut, eta orain, autobidearekin, lo pixka bat gehiago egiteko aukera daukat.

GOZATZEKO DENBORA GEHIAGO

Zure lagunez, zure familiaz, zure emazteaz, zure senargaiaz... Denbora gehiago zuretzat. **BIDEGI**k, gehien maite dituzunengandik gertuago egon zaitezen eta beraiekin denbora gehiago pasa dezazun lanean dihardu. Goza ezazu A-8 eta A-1 autobideetako zerbitzuaz, eta bidaia on!

BIDEGI, **Gipuzkoar guztientzako proiektu baten alde.**

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

BIDEGI

Goienka 2a

Egubakoitza / 2004ko irailaren 17a

Kultura eta aisialdia

Irailaren 17tik 24ra

Debagoieneko musikariak danbaka ate joka

Gure ibarrean musikarekiko zaletasun handia dago, betidanik, baina bakarlari edo musika talde berriek ez dute askotan baliabiderik izaten zaletasun hori aurrerago eramateko. Udazken honetan, hori aldatu egingo da; izan ere, Danbaka, Debagoieneko I. Musika Lehiaketa, aurkeztu zuten atzo, eguena, Goiena multimedia enpresak eta Elgetako Espaloia Kafe Antzokiak. Horko sari nagusia izango da diskoa grabatzea. Parte hartzeko atea zabalik dute ibarreko musikari guztiok, edozein estilotakoak. Grabaketak bidaltzeko mugaeguna urriaren 7a da. /15

LEIRE KORTABARRIA

Lehiaketaren ikurra.

AZALA: IÑAKI ITURBE

kalitateko haragia eska ezazu bere izenez

EUSKAL OKELA

Eusko Labela duen bakarra

EUSKAL OKELA
CARNE DE VACUNO DEL PAIS VASCO
EUSKO LABEL
KALITATEA

BAIMENDUTAKO HARATEGIA

Soilik Harategi hauetan

Baimenduak: Euskal Okela saltzeko Harategi Baimenduak.

Artisauak: Baimenduak izateaz gain, Euskal Okelarekin eta Eusko Labela daramaten beste produktu batzuekin konpromiso handiagoa duten harategiak.

ANTZUOLA
GABILONDO ARREGI HARATEGIA
KALEBARREN, 14

ARAMAIO
BIXENTE L. AZPILIKUETA HARATEGIA
BIXENTI GOIKOETXEA PLAZA, 8

ARRASATE-MONDRAGON
LANDALUZE HARATEGIA
ITURRIOZ, 7

JOSE MARI SALEGI HARATEGIA
OLARTE KALEA, 20

AZPILIKUETA HARATEGIA
DOCTOR BAÑEZ, 10

AZPILIKUETA HARATEGIA
ERGUIN, 12

KORTABERRI HARATEGIA
ANTXO ABARKA, 1

BERGARA
ANDRES MUJIKA HARATEGIA
DOMINGO IRALA, 5

BIXAIN HARATEGIA
AZOKA PLAZA PTO. 5-6

ALDAI HARATEGIA
ESPOLON, 12

ESKORIATZA
ZUBIA HARATEGIA
SANTA ANA, 11

OÑATI
ANTXON HARATEGIA
SAN LORENTZO, 5

TARSICIO HARATEGIA
PORTU KALEA, 2

GARAY HARATEGIA
MAIATZAREN LEHENA PLAZA, 2

SUPER BM OÑATI-HARATEGIA
OLAKUA AUZOA, 8

RENAULT SERVICIOS

carrocería rápida

ARTE ABSTRAKTUA MUSEOETAN DAGO ONDO, EZ ZURE AUTOAN.
CARROCERÍA RÁPIDA: KONPONKETAK 24 ORDUEN BARRUAN.

Urradurek, kolpe txikiek, kristal, argi nahiz atzerako ispilu apurtuek ez dute ongi ematen zure autoaren karrozerian. Horregatik, guk 24 orduen barruan konpontzen ditugu, aldez aurreko hitzordu barik eta unean bertan egindako aurrekontuarekin, idatziz eta konpromiso barik. Eta hala ez bada, ordezko ibilgailu bat doan.

XV Juegos Mediterráneos Almería 2005

Pieza de Origen Renault
Espíritu Renault

RENAULT recomienda elf

Renault Servicios. Gelditu ez zaitezen mugitzen gara.

Buruan baduzu, hemen duzu. www.renault.es

RENAULT
AUTOBERRI
San Andrés auzoa, 8 • Tel. 943 71 24 72 • ARRASATE

SARIKETAK/ DEBAGOIENEKO I. MUSIKA LEHIAKETA

Danbaka: musikari gazteen aukera

GOIENAK ETA ELGETAKO ESPALOIA KAFE ANTZOKIAK ANTOLATU DUTE SARIKETA, IBARREKO TALDEEI AUKERA BERRIAK EMATEKO

LEIRE KORTABARRIA

Debagoienean musika talde eta bakarlariak asko eta onak dira, eta horiek euren burua ezagutarazteko aukera paregabea dute; izan ere, Danbaka I. Debagoieneko Musika Lehiaketa deitu du Goienak. Euren musika ibarrean hedatu ahal izango dute, eta batek diskoa grabatu.

Lehenengo aldiz, musikari debagoiendarrek espresuki eurendako pentsatutako lehiaketa baten parte hartzeko modua dute, Danbaka musika lehiaketan. Goiena multimedia enpresak antolatu du, eta Iker Barandiaran kazetari eta lehiaketako koordinatzaileak eta Iban Arantzabal Elgetako Goibeko elkarteko presidenteak aurkeztu zuten egitasmoa atzo, eguena, Espaloia antzokian.

Lehiaketaren helburuak azaldu zituzten: hain zuzen, ibarreko musika taldeak sustatzea eta hemengo gazteei alternatiba bat eskaintzea.

IKER BARANDIARAN

Arrasateko Anger taldeak zabalkundea lortu zuen musika lehiaketa baten ondo sailkatu ondoren.

PROMOZIONATZEKO AUKERA

Parte hartzeko baldintza bakarrak dira bakarlaria, edo taldeko kide bat, ibarrean erroldatuta egotea, Aramaio barne; eta, bestetik, inongo diskoetxerekin kontraturik ez izatea. Besterik ez. Estilo aldetik, guztiak kabitzen dira Danbaka musika lehiaketan; izan ere, epaimahaiko kideak denetariko musika esperientziatik datoz, eta estilo guztiak baloratuko dituzte.

Sari nagusia izango da estudio batean diskoa egitea. Horrez gain, entzuleek zeresan handia izango dute, eurek erabakiko dute-eta bigarren saria zeini eman, SMS mezu bidez. Baina parte hartuko duten hogei talde edo bakarlariek izango dute, dagoeneko, aukera eder bat: euren musika ibar osoko jendeak entzungo du. Batetik, Elgetako Espaloia Kafe Antzokian kontzertu bana eskainiko dute partaideek; bestetik, emanaldiok GOITBn emango dira gero.

EMANALDIAK ESPALOIA ANTZOKIAN

Lehiaketan, gehienez ere, hogei partaide izango dira. Horiek lehen fasean sartuko dira, urriaren 22tik abenduaren 17 arte. Epe horretan, Espaloia Kafe Antzokian zuzeneko emanaldiak egingo dituzte, hamabostean behin, egubakoitzetan, eta launaka, antolakuntzak zozketa bidez aukeratutako ordenan. Horiek izango dira epaimahaiak taldeok baloratzeko modua. Hor puntu gehien lortzen dituzten hiru taldeak sailkatuko dira finalerako; azken hau urtarrilaren 14an jokatuko da.

Emanaldiak jendaurrean izango dira, eta hiru euroko sarrera izango dute. Horietara joaten direnek edo GOITBn ikusten dituztenek SMS bidez bozkatzeko aukera izango dute.

GOIENKARIAk eta *Asteleheneko Goienkaria*-k ere taldeon gaineko informazio ugari eskainiko dute.

Zer, nork, non, noiz…

ZEINI DAGO ZUZENDUA?
Debagoieneko talde edo bakarlariei.

ZER EGIN PARTE HARTZEKO?
CD-R bat prestatu honako edukiekin: hiru abesti, taldearen historia, argazkiak, helbidea, telefonoa eta posta elektronikoa, eta hona bidali: Goiena Komunikazio Zerbitzuak; Danbaka; 132 posta-kutxa; 20.500 Arrasate. 943 71 25 11 telefonoan dituzue argibideak.

EPEAK
Urriaren 7a da CDak bidaltzeko mugaeguna; 18an jakinaraziko ditu Goienak 20 talde aukeratuen izenak.

SARIAK
Irabazleak diskoa grabatuko du. Bigarren sari bat ere izango da, entzuleek SMS bidez bozkatutako taldearendako.

KOMUNIKABIDEAK
GOITBk emango ditu kontzertuok. *Asteleheneko Goienkaria*-k taldeen fitxa, elkarrizketa eta emanaldien kronika argitaratuko ditu. GOIENKARIAn, *Goiena.net*-en eta Arrasate Irratian ere egingo da lehiaketaren jarraipena.

IKER BARANDIARAN / LEHIAKETAREN KOORDINATZAILEA

"Lehiaketa gutxik irekitzen du hainbeste ate"

Lehiaketaren koordinatzailea da Iker Barandiaran kazetari arrasatearra. Berari egokituko zaizkio hainbat lan: taldeekin harremanetan jartzea, antolatzaileen bozeramailea izatea…

Zure zereginetako bat izan da epaimahaikideak aukeratzea. Zein irizpide jarraitu duzu?

Musikarekin hainbat harreman mota daude ordezkatuta: Iñaki Bengoa Shot! estudioko teknikaria da, eta musikan esperientzia du, Bad f-Line taldean, hau da, gurean estilo ezohiko batean; gero, Jul Bolinaga, aspaldiko musikagilea; Nagore Saiz musikaria eta musika irakaslea da, eta diskoetxeetan lan egindakoa, eta beste ikuspegi bat ekarriko du; eta Iban Arantzabal, hura ere diskoetxe baten lan egin duena eta Espaloia Kafe Antzokiko ordezkaria. Ni neu ere kideetako bat izango naiz.

Gure ibarrean punk-oi! talde asko dago… Eta besteak?

Horiek ere aurkez daitezela! Aukera polita izango da lehiaketa hau erakusteko gurean punk edo oi! estiloez gain beste asko ere lantzen direla. Heavya, elektronikoa, bluesa, jazza… Guztiendako lekua dago lehiaketan. Ziur punk talde asko aurkeztuko dela, baina baita bestelakoak ere, eta nik uste dut ezuste politak izango ditugula.



Iker Barandiaran.

Horrez gain, kontuan hartu behar da nahikoa dela partaideetako bat Debagoienean erroldatuta egotea, Aramaio barne. Hortaz, talde askok dute aurkezteko parada.

Zer baloratuko duzue lehenengo aukeraketa egiteko?

Taldeek hiru abestiko CDa bidali behar dute, eta, gehienez ere, 20 talde aukeratuko ditugu. Ez dugu grabaketaren kalitatea neurtuko, baizik eta talde bakoitza zelakoa den, estiloa… Abestiek balioko digute taldearen ideia bat egiteko.

Zuzeneko emanaldiak egiteko, zein material ipini beharko dute taldeek eta zein antolatzaileek?

Goienak eta Espaloia Kafe Antzokiak soinu ekipoa, argi eta soinu teknikaria eta beste hainbat elementu ipiniko dituzte. Musika tresnak talde edo bakarlariek ipiniko dituzte.

Azkenik, zer esango zenieke talde eta bakarlariei?

Aurkeztera animatzen ditut. Ez dute ezer galtzeko, eta diskoa grabatzeko aukera dute. Publikoak bere saria banatuko du. Irabazten ez dutenek ere Debagoien osoan euren burua ezagutarazteko aukera bikaina dute; izan ere, zuzeneko emanaldia egingo dute eta hori Goienako medioek eskainiko dute gero. Lehiaketa gutxik irekitzen du hainbeste ate.

Irailak 17-24

Leire Kortabarria / Zuon ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12:00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: **kultura@goiena.com** • Tel.: **943 76 03 97** • Faxa: **943 76 29 77**

MATRIKULAK

BERGARA

► **Jardunen trikiti eta bertso eskolek** ikasturtea hasi dute. Izena emateko, jo euren bulegora edo deitu 943 76 36 61 edo 943 76 08 19 telefono zenbakietara.

DEBAGOIENA

► **Ibarreko udal euskaltegi guztietan** izena emateko aukera duzue: Leintz euskaltegian (943 79 21 68); Arrasatekoan (943 79 70 77); Bergarakoan (943 76 44 53), hiru horietan hilaren 24ra arte; eta Oñatikoan (943 78 24 96), hilaren 21era arte.

► **AEK euskaltegiek** matrikulazio epea zabaldu du Arrasaten eta Bergaran, irailaren 24 arte. Argibideetarako telefonoak: 943 77 03 69 (Arrasate) edo 943 76 05 18 (Bergara).

OSPAKIZUNAK

ARETXABALETA

► **Haurren Eguna** ospatuko dute etzi, domeka, Loramendi dantza taldearen eskutik.

BERGARA

► **Barazki, fruta, gazta eta lore lehiaketa eta azoka** izango da bihar, zapatua, San Martin jaien barne. Beste ekitaldi asko izango dira bai zapatuan, bai eta domekan ere.

ELGETA

► **Sagardo Eguna** ospatuko dute bihar, zapatua.

LEINTZ GATZAGA

► **Erretiratuen Eguna** izango da bihar, zapatua. Txikiteoa, bazkaria eta dantzaldia izango dira.

OÑATI

► ***Gu eta gure hizkuntzak*** euskara, galego eta katalanaren aldarrikapen jaia izango da gaur eta bihar.

IKASTAROAK

ARETXABALETA

► **Munduko dantza ikastarorako izenemate epea** irailaren 27ra arte luzatu dute. Izena emateko, jo Aretxabaletako kultura etxera edo Azkena tabernara, edo Arrasateko Aker Tattoo dendara.

► **Yoga hastapen ikastaroa** antolatu du Sadhana zentroak. Argibideetarako, deitu 616 96 57 95 telefono zenbakira.

ARRASATE

► **Emakume Txokoak** hainbat ikastaro antolatu ditu: tai-chi, *barreterapia*, yoga, menopausia, norberaren hazkundea, antzerkia, eskulanak, emakumea eta mitologia, dantza afrobrasildarrak, eta salsa. Izenemate epea zabalik dago hilaren 20tik 24ra bitartean, 943 79 41 39 zenbakian.

► **Bioenergetika ikastaroa** deitu du Arrasate Yoga Elkarteak astelehen eta eguaztenetarako. Argibideetarako, deitu 616 96 57 95 zenbakira.

► **Monterrongo margo tailerrean** izena emateko epea zabalik dago hilaren 20tik 24 arte, Monterronen, 17:00-19:00.

► **Zeramika ikastaroa** deitzen du Loixe elkarteak urritik ekainera bitartean. 20 euro da hileko, 15 ikasle edo langabeendako. Izena emateko, deitu Gazte Bulegora (943 77 00 65).

BERGARA

► **31. Ageriko Margo Sariketa** deitu du Beart elkarteak etzirako, domeka. Euskarriak zigilatzeko, jo kultura etxera, 09:00-11:00.

DEBAGOIENA

► **Euskararen gaineko grafiti lehiaketa** deitu du Topaguneak, Euskara Elkarteen Federazioak. Parte hartzeko, bidali grafition zirriborroa honako helbidera: Topagunea Euskara Elkarteen Federazioa; Arlozabal 8 bis. 1C; 48220 Abadiño (Bizkaia). Mugaguna da irailaren 25a. Lehiaketa urriaren 2an jokatuko da Mendaron. Argibide gehiagorako, deitu 94 621 51 16 telefonora edo bidali mezu bat *gazteak@topagunea.com* helbidera.

MUSIKA

BERGARA

► **Techno jaialdia** izango da bihar, zapatua, Jam aretoan, 00:00etan. Hainbat disko jartzaile izango dira.

► **Lau talderen kontzertua** izango da gaur, egubakoitza, gaztetxean, 22:30ean: Rombos Negros, Non Result (biak Gasteizkoak), Harrikada (Bergara) eta Compadres Muertos (Mexiko) taldeek joko dute.

OÑATI

► **Aretxabaletako Akordeoi Orkestrak** emanaldia egingo du etzi, domeka, Santa Ana antzokian, 19:30ean, Jose Orobengoak zuzenduta.

LEHIAKETAK

ARRASATE

► **Ehiza txapelketa** deitu du Leintze elkarteak irailaren 26rako. Izena emateko eguna eguaztena, hilak 22, duzue, euren egoitzan, 19:00-20:00.

IKUSKIZUNAK

BERGARA

► ***Izena duen guztia omen da*** dantza ikuskizuna egingo du Aukeran taldeak gaur, egubakoitza, pilotalekuan, 22:30ean.

DEIAK

ARETXABALETA

► **Odol-ateratzeak** egingo dituzte astelehenean, irailak 20, osasun zentroan, 16:15-20:00.

► AZOKAK

BIGARREN ESKUKO BIZIKLETA AZOKA IZANGO DA BIHAR ARRASATEN

Autoa garajean utzi eta bizikleta gehiago erabiltzea bultzatu gura du Arrasateko Udalak, Autorik Gabeko Astearen barruan. Hori dela-eta, *bir-zikleta* azoka deitu du biharko, zapatua, Seber Altube plazan. Herritarrek euren bizikletak eta horiendako material osagarria Udalari saltzeko aukera izan dute egunotan, eta bihar horiek saltzen ibiliko dira Udal Langileak, 11:00etatik 13:30era eta 17:00etatik 19:30era bitartean. Bizikleta garraiobide moduan sustatzeko beste ekintza bat gaur, egubakoitza, izango da; izan ere, Mikel Lizarralde oñatiar adituak bizikleta tailerra gidatuko du Herriko Plazan, eta bizikletak konpontzen ibiliko da jendaurrean, 17:00etatik 19:00etara bitartean.

Non: Arrasateko Seber Altube eta Herriko plazetan. **Noiz:** azoka, bihar, zapatua; tailerra, gaur, egubakoitza.

CRISTINA
Lois • Levi's Autentic• Bigstar • Yerse
%10 Aurtengo neguko arropetan
Arruriaga z/g (Correos parean) - Tel.: 943 76 03 04 - BERGARA
Astelehen goizetan zabalik

NUEVA IMAGEN
IKASKETA ZENTROA
ILE APAINTZE-ESTETIKA
MATRIKULA EPEA ZABALIK
Maila goreneko diplomatura
GASTEIZ
Santiago etorbidea 25
(autobus geltokiaren ondoan)
945 27 91 33

ARRASATE

► **Gay eta lesbianendako topagunea** antolatu gura du Emakume Txokoak ikasturte berrian. Argibideak, 943 79 41 39 telefonoan.

► **Guraso Eskolan** izena emateko epea zabalik dago hilaren 25 arte. Deitu Udal Prebentzio Sailera (943 79 09 00).

► **Katekesirako izena emateko** aukera duzue hilaren 20tik 22ra bitartean, Abadetxean, 16:30-18:00.

BERGARA

► **Alzheimerrari aurre egin** delako hitzaldia egingo dute Afagi elkarteko presidente Koldo Aulestiak eta Agustin Sagasta neurologoak irailaren 23an, eguena, kultura etxean, 19:30ean.

► **Begiraleak behar ditu** Jardun elkarteak, zapatu arratsaldeetarako. Izena emateko, jo euren bulegora irailaren 30a baino lehen.

DEBAGOIENA

► **Gripearen aurkako txertoa** hartzeko aukera izango da urriaren 31 arte. Argibide gehiagorako edo txanda hartzeko, deitu anbulatoriora.

► **Nafarroa Oinezera** laguntzera joateko deialdia zabaldu dute Debaguneak eta ikastolek. Argibide gehiago, euskara elkarte edo ikastoletan.

ESKORIATZA

► **Ikastaroak eta mintegiak** antolatu ditu KZGuneak: hain zuzen, oinarrizko Internet ikastaroa (irailak 20) eta Outlook Expressen gaineko mintegia (hilak 23).

OÑATI

► **Odol-ateratzeak** izango dira gaur, egubakoitza, Txantxiku ikastolan, 18:00-20:00.

► **Igerilekuak itxita** egongo dira urriaren 5 arte, berriketa lanak direla eta. Aste honetan hastekoak ziren kirol ikastaroak egun horretan hasiko dira.

► **Ganbara Txiki abesbatza** osatu guran dabil Ganbara taldea, eta izena emateko deia egiten diete 6-14 urte bitarteko oñatiarrei. Horretarako, ikastetxeetan banatuko duten orria bete behar da, edo *www.ganbara.org* webgunera jo.

ERAKUSKETAK

OÑATI

► **Diego Moyua oñatiarrak** margolanak erakutsiko ditu hilaren 26ra bitartean, kultura etxeko erakusketa aretoan, egunero 18:30etik 20:30era.

Zinema

ARRASATE

■ **AMAIA ANTZOKIA**

Shrek 2
Zapatua: 19:00, 22:00.
Domeka: 17:00, 19:00.

BERGARA

■ **NOVEDADES**

La sombra de un secuestro
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 19:30, 22:30.
Domeka: 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30.

Doraemon gladiadorea
Zapatua eta domeka: 17:00.
Astelehena, ikuslearen eguna.

ELGETA

■ **ESPALOIA**

Boys don't cry
Eguaztena: 21:30.

OÑATI

■ **KULTURA ETXEA**

Yo, robot
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.
Astelehena, ikuslearen eguna.

EIBAR

■ **UNZAGA**

El mito Bourne
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena, martitzena eta eguaztena: 19:30, 22:15.
Eguaztena, ikuslearen eguna.

■ **RIALTO**

Garfield
Egubakoitza: 19:30.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30.
Astelehena eta martitzena: 19:30.

La vecina de al lado
Egunero: 22:15.
Martitzena, ikuslearen eguna.

GASTEIZ

■ **GURIDI**

Mar adentro
17:30, 20:00, 22:30.

La sombra de un secuestro
20:00, 22:30.

En busca del valle encantado
17:30.

Cuestión de pelotas
18:00, 20:15, 22:30.

El mito de Bourne
18:00, 20:15, 22:30.

Cazadores de mentes
17:30, 20:00, 22:30.

La terminal
17:30, 20:00, 22:30.

El rey Arturo
17:30, 20:00, 22:30.

■ **MIKELDI ZINEMAK**

Mar adentro
17:30, 20:15, 22:45.

Shrek 2
17:15, 20:00.

Kill Bill 2
17:15, 20:00, 22:30.

El rey Arturo
20:00, 22:30.

Yo, robot
22:30.

El mito de Bourne
17:30, 20:15, 22:45.

La terminal
17:30, 20:15, 22:45.

Spider-man 2
17:15.

La memoria de los peces
17:30, 20:15, 22:45.

Fahrenheit 9/11
17:15, 20:00, 22:30.

Young Adam
17:20, 19:50, 22:35.
Martitzena eta eguena, ikuslearen eguna.

■ **FLORIDA-GURIDI**

No te muevas
17:30, 20:00, 22:30.

Primavera, verano, otoño, invierno… y primavera
17:30, 20:00, 22:30.

La memoria de los peces
18:00, 20:15, 22:30.

La jirafa
17:30, 22:30.

El tren de Zhou Yu
18:00, 20:15, 22:30.

Negocios ocultos
17:30, 20:00, 22:30.

La gran seducción
18:00, 20:15, 22:30.

Baran (Lluvia)
20:00.

■ **ABACO-LAKUA ZINEMAK**

Garfield
16:15, 18:15, 20:15, 22:15, 00:30.

Cuestión de pelotas
16:15, 18:15, 20:15, 22:20, 00:30.

Shrek 2
16:45.

Isi / Disi
22:30, 00:30.

El mito de Bourne
16:00, 18:10, 20:20, 22:30, 00:45.

Yo, robot
16:30, 19:00.

Madhouse
22:30, 00:30.

El rey Arturo
19:00, 22:10, 00:45.

La vecina de al lado
22:00, 00:30.

Las mujeres perfectas
22:30, 00:30.

Zafarrancho en el rancho
16:20, 18:00, 19:45.

Spy kids 3D
16:00, 18:00, 20:00.

Doraemon gladiadorea
16:00, 18:00, 20:00.

Escuela de seducción
16:00, 18:10, 20:20, 22:30, 00:45.

Gauerdiko saioak, egubakoitzean eta zapatuan. Eguaztena, ikuslearen eguna.

■ **YELMO CINEPLEX-GORBEIA**

El mito de Bourne
12:15, 16:00, 18:10, 20:20, 22:40, 01:00.

Mar adentro
12:15, 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.

Garfield
12:15, 16:10, 18:10, 20:10, 22:10, 00:10.

Isi / Disi
20:40, 22:40, 00:40.

Las crónicas de Riddick
12:15, 16:45, 19:15, 21:45, 00:15.

Cazadores de mentes
12:15, 16:05, 18:05, 20:15, 22:20, 00:35.

El rey Arturo
12:15, 16:20, 19:00, 21:30, 00:00.

Escuela de seducción
12:15, 16:00, 18:05, 20:15, 22:20, 00:25.

Spy kids 3D
12:15, 16:40, 18:40.

Cámara oscura
20:15, 22:35, 00:45.

La sombra de un secuestro
20:35, 22:35, 00:35.

Yo, robot
22:20, 00:40.

Zafarrancho en el rancho
12:15, 16:05, 18:05.

Shrek 2
12:15, 16:35, 18:35.

La terminal
12:15, 17:05, 19:30, 22:00, 00:30.

Cuestión de pelotas
12:15, 16:15, 18:15, 20:05, 22:15, 00:15.

Madhouse
12:15, 16:45, 18:45, 20:45, 22:45, 00:45.

Mamá a la fuerza
12:15, 16:00, 18:15.

Gauerdiko saioak, egubakoitzean eta zapatuan. Eguerdiko saioak, domekan. Astelehena, ikuslearen eguna.

■ **ÁBACO BOULEVARD**

Garfield
12:20, 16:00, 18:00, 20:00, 22:00, 00:30.

Mar adentro
12:20, 17:00, 19:40, 22:15, 01:00.

La maldición 2
Egubakoitza: 16:10, 18:20, 20:20, 22:20, 00:30.
Zapatua: 18:20, 20:20, 22:20, 00:30.
Domeka: 18:20, 20:20, 22:20.

Chicas malas
12:10, 16:10, 18:10, 20:10, 22:10, 00:40.

La terminal
12:00, 17:05, 19:45, 22:30, 01:05.

Las crónicas de Riddick
12:15, 17:15, 20:05, 22:30, 01:05.

El mito de Bourne
12:00, 16:00, 18:15, 20:30, 22:50, 01:10.

Cuestión de pelotas
12:15, 16:30, 18:30, 20:30, 22:40, 00:45.

Spy kids 3D
12:10, 16:20.

Escuela de seducción
12:00, 16:00, 18:15, 20:30, 22:50, 01:10.

Shrek 2
Zapatua: 16:10.
Domeka: 12:00, 16:10.

Mamá a la fuerza
Egubakoitza: 16:30, 19:15, 22:00, 00:30.
Zapatua: 19:15, 22:00, 00:30.
Domeka: 19:15, 22:00.

Cazadores de mentes
12:20, 17:20, 19:40, 22:10, 00:30.

El rey Arturo
19:00, 22:00, 00:45.

Zafarrancho en el rancho
Zapatua: 16:10.
Domeka: 12:00, 16:10.

Gauerdiko saioak, egubakoitzean eta zapatuan. Eguerdiko saioak, bakarrik domekan. Eguaztena, ikuslearen eguna.

La sombra de un secuestro: ●●● / ***Kill Bill 2:*** ●●● / ***Shrek 2:*** ●●● / ***Spider-man 2:*** ●● /

ESKASA:● BALEKOA:●● ONA:●●● OSO ONA:●●●● BIKAINA:●●●●●

KRITIKA

MAR ADENTRO

PUNTUAZIOA: ●●●

ZUZENDARIA: Alejandro Amenabar.
AKTOREAK: Javier Bardem, Belén Rueda, Lola Dueñas.

Askotan ikusten dugu Ameriketako Estatu Batuetako zinemarako egindako ekoizpen handiek denbora eta diru piloa erabiltzen dutela estreinaldia ezagutzera emateko. Telebistako saioetan, egunkarietan, aldizkarietan edo irratian behin eta berriz agertuz, ematen du ia derrigorrezkoa dela filma ikustea. Ba horixe da, gutxi gorabehera, *Mar adentro*-rekin gertatu dena. Filmaren ekoizpenean telebistako eta zinemako ekoizpen talde handiak sartuak daudenez, eta Venezian sari garrantzitsuak lortu dituenez, ikusleek ez dute duda gehiegirik izan zinema gelak bete, eta gainera, orokorrean, nahiko gustura irteteko. Osagai horiekin guztiekin, film zoragarri baten aurrean egotearen sentsazioa sortu da, eta ez da hainbesterako. *Mar adentro* gustura ikusten da, ondo filmatuta dago, aktoreek lan ederra egiten dute, baina jorratzen duen gaia kontuan izanda errazegi ikusten dela esango nuke: apur bat azaletik kontatzen du istorioa, ez ditu ikuslearen sentimenduak gehiegi astintzen, eta, horrela, ikuslearendako istorioa liserigarriagoa bihurtzen da.

Goiko lerroetan idatzitakoarekin ez dut esan nahi *Mar adentro* gaizki dagoenik, baina bai zerbait falta zaiola lan eder bat izateko. Javier Bardem —askok dagoeneko hedabideetan ikusiko zenuten bezala— makillatuta agertzen da Ramon Sampedroren pertsonaia egiteko. Bada, gauza bera gertatzen zaio filmari: dena oso neurtua dagoela ematen du, esate baterako, txisteak bere tokian daude mingarriegiak ez izateko; Sampedroren irudipenenek plano ikusgarriak eta politak ikusteko aukera ematen dizkigute, baina ez digute ezer berririk esaten; istorioa Sampedroren bizitzako azkeneko hilabeteetan girotua dagoenez, ez dugu ikusten honen eta honekin bizi direnen bilakaera, eta ez du pertsonaiaren sufrimendua behar zuen indarrarekin islatzen. Oro har, istorioa makillaje apur batekin edo eskubalazta emanda egina dago. Agian, Amenabarrek ez zuen sentimentalegia izan nahi, edo istorioa errealitatetik ateratakoa denez, errespetu gehiegirekin hurbildu da, eta horrela, *Mar adentro* gustura ikusten da, baina ez du bihotza sakonegi ukitzen.

ANTONIO ZABALA

KOROSTI INMOBILIARIA
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
Santi Kutz 8 • LEGAZPI
Tel.: 943 73 05 25

ETXEBIZITZAK SALGAI
Bergara:
• Zubiaurre 50 m². Berrituta.
• Masterreka 75 m². Berrizteko.
• Azkarruntz 80m². Berrituta.
• San Pedro 150m². Ondo.
Antzuola:
• Hamaika etxebizitza eraikin berrian. Ondo kokatuta. Garajea aukeran.
PABILIOIA SALGAI
• Osintxu 660 m²
BASERRIAK SALGAI
• Elosun, Osintxun, Angiozarren, Soraluzen eta San Juanen.
LOKALAK ETA GARAJEAK SALGAI ETA ERRENTAN

DEBA GARAIA INMOBILIARIA
Telesforo Aranzadi 2
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37
Zarugalde 1 Arrasate
T: 943 77 13 02 F. 943 73 12 40

ETXEBIZITZAK SALGAI
BERGARA:
•Erdialdea 86 m². Etxe berria.
•Martoko 60 m². Berrituta.
•Zubiaurre 51 m². Eguzkitsua. Garajea.
•Erdialdea 78 m². Berrituta.
•San Anton 67 m². Berrituta.
ANTZUOLA:
•11 etxebizitza berri.
•Beheko auzoa 60 m². Berrituta.
SORALUZE:
•80 m².Berritua. Garajea eta txokoa.
BASERRIAK
•Angiozar 600 m² eta lursaila.
•Elosua 405 m² eta lursaila.
Bergaran salgai eta errentan:
Lokalak, pabilioiak eta garajeak

Iragarki sailkatuak

943 76 92 71 edo *sailkatuak@goiena.com*

DEBAGOIENA

ERAGILEA behar da egun erdiz euskara elkarte batean.

Hauxe eskatzen da:
- EGA edo baliokidea izatea.
- Informatikako ezagutzak izatea.
- Emakumea izatea.

Interesatuok deitu 651 70 79 36 telefonora edo curriculuma bidali irailaren 30a baino lehen helbide honetara:

Ekin Emakumeak elkartea
Paulo Uranga 6, behea
20500 Arrasate

BERGARA

JAM ARETOAN ZERBITZARIAK BEHAR DIRA. 677 45 23 33

ARRASATE

ARRASATEKO ARTEAGA LANDETXEAN ZERBITZARIA BEHAR DA ASTE BARRUAN EGUN ERDIZ LAN EGITEKO. 943 71 18 81

Garbi S.L.

PIPIEN, TERMITEN, ETA ABARREN AURKAKO TRATAMENDU ANTIXILOFAGOAK EGURREAN, ALTZARIETAN, ETA ABARRETAN.
943 33 18 37 (HERNANI)
649 84 67 09 (BERGARA)

1/ ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Aretxabaleta. Erdialdean. 80m². Hiru logela eta egongela. Dena kanpora begira. Bizitzen hasteko moduan. Deitu 17:00etatik 21:00etara. 627 34 92 27.

Aretxabaletako erdigunean. 70 m² ditu, bi gela, sukaldea, egongela, bainua eta trastelekua. Baita igogailua eta berogailua ere. Telefonoa: 618 00 15 00.

Arrasate. Eguzki dorrean, 80 m², hiru logela, sukaldea, komuna, egongela. Telefonoa: 943 79 43 39.

Arrasate. Etxebizitza salgai erdigunetik lau minutura. Berritua. Jantzia. 162.273 euro (27 milioi pezeta). 686 89 98 84.

Aretxabaleta. Atikoa salgai Beroan, estreinatu gabea. 75 metro koadro erabilgarri. Garajea ere badauka. Telefonoa: 618 87 34 35.

Bergara erdigunean etxebizitza berriztatua saltzen da, igogailurik gabe. Telefonoa: 605 73 37 39.

103. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Musakola auzoan ikasleendako etxebizitza errentan ematen da. Telefonoa: 943 77 03 25.

Chiclana (Cadiz). Etxebizitza errentan leku ezin hobean. Hondartzatik oso gertu. Irailean, urrian... 627 29 46 39 edo 945 06 00 24.

Costa Sancti Petri (Chiclana, Cadiz). Apartamentua errentan, urbanizazio berrian. 616 14 65 54 edo 678 78 39 10.

105. ETXEAK OSATU

Arrasate. Etxea osatzeko pertsona bat behar da. Unibertsitatetik 10 minutura. 605 75 72 37.

Arrasate. Lanean diharduen neska batek logela errentan hartuko luke. 650 59 93 91.

Oñati. Etxebizitza osatzeko pertsona bat behar da. Axun. 656 71 04 11.

Salamanca. Unibertsitatetik gertu dagoen ikasle etxebizitza osatzeko ikasle euskalduna behar da. 665 71 01 64 edo 685 70 85 52.

106. BESTELAKOAK

Bergara. Logela errentan ematen da, astelehenetik ostiralera. 200 euro gastuak barne. 670 40 74 53.

2/ GARAJEAK

201. SALDU

Arrasaten, Kontzeziño kalean, garaje itxia salgai daukat. 16 metro koadro ditu. Telefonoa: 943 79 16 21.

Donostia. Garajea salgai Amaran. Arko merkataritzagunearen parean. Terranovako Arrantzaleak 5 kalean. 12 m². Prezio ona. Nekane. Telefonoa: 605 74 26 60.

203. ERRENTAN EMAN

Arrasaten, Kontzezino kalean garaje itxia errentan ematen dut. 943 79 55 20.

Bergara. Garajea errentan San Lorentzo auzoan. Telefonoa: 943 76 58 28.

Oñatin, Santa Marina plazan. Garaje handia da, bi autorendako tokia du. Telefonoa: 615 71 53 29.

3/ LOKALAK

301. SALDU

Bergara. Lokal komertziala salgai. Telefonoa: Telefonoa: 943 79 76 95.

4/ LANA

401. ESKAINTZAK

Arrasateko Uribe auzoan, emakume bat behar da umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 19:00etatik aurrera deitu, mesedez. 943 77 16 19 edo 676 05 53 40.

Bergara. pertsona bat behar da umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Telefonoa: 657 79 79 35.

402. ESKAERAK

Aretxabaleta. Emakumea gertu etxeko lanak egiteko. 637 88 24 74.

Bergara. Emakumezko arduratsu batek hainbat lan egingo lituzke: etxeak edo lokal komertzialak garbitu; zaharrak edo umeak zaindu; tabernan jardun, e.a. Telefonoa: 639 77 39 56.

Bergara. Haurrak zaindu edo etxeko lanak egingo nituzke. Joana. 600 71 43 07.

Debagoiena. Emakume batek bere burua eskaintzen du etxean bizi eta bertan lan egiteko. 690 12 41 78.

Eskoriatza. Neska euskalduna gertu umeak zaintzeko. Esperientziaduna. (Irati). 665 73 36 90.

5/ IRAKASKUNTZA

502. EMAN

Arrasate. Goi mailako ingeniari industrialak eskola partikularrak ematen ditu. Esperientzia handia. Maila guztiak. 630 71 35 83.

Arrasate. Zuzenbidean lizentziadunak 1. eta 2. hezkuntzako eskolak ematen ditu, euskaraz zein gazteleraz. Esperientzia. 943 79 83 46.

Bergara. Ingeleseko eskolak ematen ditut. Ainhoa. Telefonoa: 605 76 32 72.

6/ MOTORRA

601. SALDU

BMW RT 1.150 R. motoa salgai. Bi urte eta erdi, 23.000 km. Eskutoki berogailuak ditu. Oso zainduta dago. Igor. 629 37 60 06.

Citröen 2CV autoa salgai. SS-P matrikula. 900 euro. 943 08 22 41.

KTM EXC 250 enduroko motorra salgai. Matrikulatua. 636 84 96 97.

Seat Arosa 1.0 autoa salgai. BI-CS.Bost urte. 45.000 km., 4.000 euro. 946 23 17 56.

Seat Ibiza 1.4 gasolina autoa salgai. Ondo zaindua. Lau urte, 33.000 km. IAT 2006ko uztailera arte. 627 21 87 49.

7/ ANIMALIAK

701. SALDU

Hispanier txakurra salgai. Gauez deitu. 943 78 03 08.

8/ DENETARIK

801. SALDU

Eskusoinua edo akordeoi handia salgai. Tekladuna. 943 76 16 79.

Intxaurrak eta urrak salgai. Zapatuetan saltzen ditugu. 943 76 64 65.

Ordenagailua salgai. Pentium III, 450 MHZ, pantaila 17", Windows XP. Berria. 300 euro. 637 83 18 45.

Sagardo-sagarrak salgai. 639 22 24 02 edo 943 71 82 43.

Trikitixa salgai. Egoera onean. 656 76 48 14.

Tronpeta salgai. Ondo dago. 943 78 70 52.

802. EROSI

Inguruko mendietan txabola edo antzekoa erosiko nuke. 675 00 66 03.

803. EMAN

Debagoiena. Ohe bat ematen da (90 cm). Eta koltxoia. 943 77 01 82.

806. GALDU

Eskumuturrekoa galdu nuen irailaren 4an Arrasateko erdialdean. Ainara eta 30/06/77ko data jartzen du. Zilarrezkoa da. Aurkitu baduzu, dei iezadazu, arren. 943 77 08 28 edo 943 79 52 35.

DEBAGOIENA

20-45 urte baduzu, komunikatzaile ona, dinamikoa eta itxura onekoa bazara eta lanerako gogoa baduzu, DEI EGIGUZU. Ordutegi malgua. Ez da beharrerzkoa esperientzia izatea. 635 73 31 26

ARAMAIO

ZERBITZARIA BEHAR DA ASTEBURUETAN LAN EGITEKO. 626 75 91 04

BERGARA

SUKALDE LAGUNTZAILEA ETA ZERBITZARIA BEHAR DIRA. 943 76 48 63

ARAMAIO

ZERBITZARIA BEHAR DA ASTE-BURUETARAKO. 945 44 50 86

ARETXABALETA

ZERBITZARIA BEHAR DA ASTE-BURUETARAKO. 647 05 42 75

ARRASATE

GUTXIENEZ ZAZPI URTEKO ESPERIENTZIA DUEN ILE APAINTZAILEA BEHAR DA. OSO ONDO ORDAINDUA. 676 22 33 18

LAN POLTSA

Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatibak

LAN POLTSA OSATZEKO TELEBISTARAKO KAMERALARIAK BEHAR DITU

Eskatzen da:

- Titulazioa izatea.
- Euskaraz jakitea.
- Gidabaimena edukitzea.

Interesatuok bidali curriculuma:

Goiena Komunikazio Zerbitzuak
132 pk, 20500 ARRASATE
Edo: admi@goiena.com

Curriculumak aurkezteko azken eguna:

2004ko irailaren 24a

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

Biodantza Ikastaroa

Zure gorputza sentitu eta dantzan gozatu!

Hasierako maila

Asteartean
10:00-12:00 eta 18:00-20:00

Hasiera: urriak 5
Informazioa: 679 44 12 29
Arrasate Yoga Elkartean.
Jose Luis Iñarra pasealekua, Altamira

Estetika Zentroa

Gure **larunbatean,** hilak 18, lokal berriaren **inaugurazioa.** Zatoz 12:00etatik 14:00etara eta ezagut ezazu.

Kale Barria 29, behea
Orbea etxea (parke aldetik)
Tel.: 943 78 01 46
OÑATI

URTEURRENA

Felix
Elorza Gorosabel
Axun Bengoaren alarguna

Lehen urteurreneko meza zapatuan, irailaren 18an, 19:00etan, Arrasateko San Juan Batailatzailearen parrokian.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Jesus
Iribecampos Okina

Lehen urteurreneko meza domekan, irailaren 19an, 11:00etan, Arrasateko San Andresko parrokian.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Abelina
Ezkurra Ibarguen

Lehen urteurreneko meza domekan, irailaren 19an, 12:30ean, Arrasateko San Frantzisko elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

HILDAKOAK

Julian Txopitea Iturbe. Bergaran, irailaren 9an. 94 urte.
Jesus Landa Urkiola. Arrasaten, irailaren 11an. 90 urte.
Antonio Gantxegi Garitano. Bergaran, irailaren 12an. 77 urte.
Alejandro Belategi Pagaldai. Eskoriatzan, irailaren 13an. 84 urte.
Manuel Modesto Ascension Diez. Arrasaten, irailaren 14an. 73 urte.
Juan Jose Gorosabel Aranguren. Arrasaten, irailaren 14an. 92 urte
Maria Eguren Makazaga. Bergaran, irailaren 14an. 83 urte
Jose Martin Altuna Lazkanoiturburu. Oñatin, irailaren 15an. 75.
Josu Ibabe Guridi. Bergaran, irailaren 16an. 42 urte.

Josu Aranburu oñatiarra eta **Oneida Zubia** aretxabaletarra joan den zapatuan, irailaren 11n, ezkondu ziren Oñatin. Ezkonbidaia egiteko Mexiko aukeratu dute. Zorionak, bioi, etxekoen eta lagunen partetik!

Borja Gariotaonandia eta **Leire Langarain** joan den zapatuan ezkondu ziren Arrasateko udaletxean. Orain, Polinesia Frantziarrean daude ezkonbidaian. Zuen koadriletako lagunen partetik, zorionak eta urte askotarako!

ESKELA

Josu Ibabe Guridi

Gasteizen hil zen 2004ko irailaren 16an, 42 urte zituela.

Zure oroimena beti izango da gure bihotzetan.

Iñaki eta Joakin.
Bergaran, 2004ko irailaren 17an.

Aitzol Okina eta **Laura Aluitz** arrasatearrak irailaren 4an ezkondu ziren Zumarragako Antiguako ermitan. Zumarragan egin zuten bazkaria, eta Kanadara eta Maldivetara joan dira eztei bidaian. Familiaren partetik, oso ondo pasatu zutela. Zorionak!

Cesar Azkarate eta **Larraitz Arriolabengoa** irailaren 4an ezkondu ziren Azkoagan (Aramaio). 175 lagun inguru batu ziren bazkarian, etxekoak, senitartekoak eta lagunak. Orain, Singapur, Australia eta Bali bisitatzen ari dira. Zorionak!

ESKER ONA

Antonio Gantxegi Garitano

Arrasaten hil zen 2004ko irailaren 12an, 77 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

Bergaran, 2004ko irailaren 17an.

ESKER ONA

Gregorio Muruamendiaraz Oruesagasti

Gasteizen hil zen 2004ko irailaren 13an, 84 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.



Antzuolan, 2004ko irailaren 17an.

URTEURRENA

Felix Bolinaga Urraza

Juanita Arabaolazaren alarguna

Lehen urteurreneko meza zapatuan, irailaren 18an, 19:00etan, Oñatiko San Migel parrokian.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Pedro Paternain Suberbiola

Lehen urteurreneko meza domekan, irailaren 19an, 12:30ean, Bergarako San Pedro parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Prudencio Mujika Telleria

Lehen urteurreneko meza domekan, irailaren 19an, 12:30ean, Bergarako San Pedro parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Iñaki Lazpiur Agirrebeña

Lehen urteurreneko meza domekan, irailaren 19an, 12:30ean, Bergarako San Pedro parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Lucio De la Presa Martinez

Lehen urteurreneko meza domekan, irailaren 19an, 12:30ean, Bergarako San Pedro parrokian.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Ignacio Bilbao Mujika

Lehen urteurreneko meza domekan, irailaren 19an, 12:30ean, Bergarako San Pedro parrokian.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

MEZA

Eugenia Zubizarreta Mujika

Macachin-en (La Pampa, Argentina) hil zen 2004ko apirilaren 25ean.

Bere arimaren aldeko meza domekan, irailaren 19an, 12:30ean, Bergarako San Pedro parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

HITZGEZIDUNAK

Luma



	Lurra gurea da / Argazki-koaderno		Inspirazio artistikoa / Pare bat		*Deitura	
	Infin., aisatu / Txano mota					
Jabetzea / *Izena		Bina bokal barik / Begirada (Ipar.)		Ez eme / 2. musika nota		
					Ehun / Lelo, ergel	
Adinako / Argala, estua						
				Artsenikoa / Mordo, talde		
Gar / Hestebete luze eta mehea			1.eta 3. bokalak / Trebe, abil			Ibarra, harana
Ño, tori! / T birritan			Lerde / Zerezko atzizkia			
		Gitarra jotzeko / Ustekabea			Roentgen / Dezimetro	
Zoko, bazter / Mundura etorri						
			Sortu zintuena			

BILABILA7

UMOREGIROAN/ Pedro Zelaia

Pedro Zelaiak argitaratutako txiste bilduma-liburutik hartuta.

ESKOLAKO TONTUA

Eskolan elkarrekin ibilitxakuak ziran. Bata, argi-argixa. Bestia, tonto-tontua. Estraperlo denboran barriz ikusi bihar izan ziran. Argi-argixa fabrika bateko burua zan. Bestia, estraperloko materixalak saltzen Bilbon bizi zan. Juan da gure gizon argixa Bilboko Patxo kafeterixara, Arenalian. An eitxen ziran orduan materilaxalen saldu-erosketak. Etorri da gure tontua Mercedes zoragarri baten kafeterixara eta esatetsa eskolako lagunari:
- Materixal ori biok? Zenbat tonelada nai ditxuk? Ori nere kontu. Laister izangok Eibarren.

Inbitau zeban, gaiñera, bazkaltzera. Eta bazkaltzen ziarduela, esaten detsa tontuak:
- Bai, nik diru asko eiñ juat estraperluan.
- Bai ba, lapurretan egiten dozue-ta...
- Keba!, nik eitxen dotena biarra dok. Nik 3 por 100 bakarrik kargatzen juat.
- 3 por 100ekin egiten dok hainbeste diru...
- Ba, kalkulaik, nik hogei duruan erosten dotan materixala, 300 pezetan saltzen juat!

EZETZASMATU!

Estepan Plazaola

Ze izen dauka Elgetako kafe antzokiak?

Debagoienean hainbat antzoki edo areto daude oso egokiak direnak musika, antzerkia eta beste era bateko ekitaldiak ikusteko. Oraintsu, aurtengo udan, gainera, beste bat zabaldu dute Elgetan. Asmatuko zenuke Elgetako kafe antzokiaren izena?

- Zabalotegi.
- Santa Ana.
- Espaloia.
- Amaia.

Erantzun zuzena: Espaloia.

SOLUZIOAK





ASTEKOHOROSKOPOA

Gipuzkoako Astrologi Elkartea

ARIES
martxoak 21-apirilak 21

Anaiaren/arrebaren batek arazoak izango ditu, eta eginbeharren bat aldera batera utzi beharko duzu. Bestalde, autoaren motorrarekin arazoak izango dituzu eta errebisioa egitera eraman beharko duzu.

TAURUS
apirilak 22-maiatzak 21

Jendearengan segurtasuna eragiten duzu, eta, hori dela eta, bat baino gehiago zugana inguratuko da laguntza edo aholku eske. Bestalde, bidaia atsegin bat egingo duzu atzerrira, familiakoekin.

GEMINI
maiatzak 22-ekainak 21

Liskarrak izango dituzu lanekoekin; energia soberan duzu eta oso ausarta zara, eta haiek aurrera eramaten ausartzen ez diren proiektuak zuk hartzen dituzu. Laburbilduz, inbidia izango dute.

CANCER
ekainak 22-uztailak 22

Familiarteko batzuek, euren artean, oso hartueman txarra daukate, eta zu ibili beharko zara haien artekoak konpontzen. Bikotekidea badaukazu, zuen artekoak hobera egingo du.

LEO
uztailak 23-abuztuak 22

Arazoak anaiekin/arrebekin; izan ere, beti esaten dizute zer egin behar duzun, eta hori ez duzu gustuko. Bestalde, bidaia bat egingo duzu atzerrira, eta oso positiboa izango da, gauza berri eta interesgarriak ikasiko dituzu-eta.

VIRGO
abuztuak 23-irailak 22

Fantasiatan eta galduta ibiltzeko joera daukazu, eta galera ekonomiko garrantzitsua izan zenezake horren erruz. Bestalde, zorabioak edo zorabio-sentsazioa, tentsioaren gorabeherek eraginda.

LIBRA
irailak 23-urriak 22

Bidaia bat egingo duzu lan kontuengatik, baina ez dituzu beteko hasiera bateko helburuak. Bestalde, anaia/arreba batek arazoak izango ditu, eta laguntza eskatuko dizu. Zain ezazu eztarria.

SCORPIUS
urriak 23-azaroak 22

Hobekuntzak lanean, ardura gehiago eta botere handiagoa izango duzulako; baina ez harroa izan eta ez erabili botere hori gehiegikeriarekin.

SAGITTARIUS
azaroak 23-abenduak 21

Bakarrik egon gura izango duzu, erabaki batzuk hartzeko; lagunek lagundu egingo dizute. Ahalegin zaitez haien laguntzari ukorik ez egiten eta kontuan izan haien ikuspuntuak.

CAPRICORNUS
abenduak 22-urtarrilak 20

Oso une aproposa hainbat jarduera egiteko. Bestalde, oso detailezale eta puntalakurloa zara, eta horrek eragin lezake zure ingurukoek zurekin egon gura ez izatea.

AQUARIUS
urtarrilak 21-otsailak 20

Zailtasuna duzu errealitatea antzemateko, eta horrek kalte egin diezazuke. Neska/mutil batek baino gehiagok gura izango du zurekin harreman sexuala izatea.

PISCIS
otsailak 21-martxoak 20

Oso erosoa zara eta ez dituzu aldaketak gustuko; hori dela eta, lan-eskaintza polita egingo dizute, baina gerta daiteke lan hori ez onartzea, oso patxadazalea zarelako.

GIPUZKOAKO
ASTROLOGI ELKARTEA

Irailaren 20a: 013 zozketa

Harpidedunen txokoa

Sariak, astero!

Astelehenean, irailak 20, sari hauek izen-abizenak izango dituzte.
Asteleheneko Goienkaria-ren harpidedun bazara, adi:

Zeu izan zaitezke sari hauen irabazleetako bat!

Irailaren 20ko sariak



- **ZUMELAGA** jatetxean bi lagunendako afari zoragarria.
- Donostiako **AQUARIUM**era joateko 12 gonbidapen (saridun bakoitzarendako bi sarrera).
- **YELMO CINEPLEX** (Gorbeia merkataritza gunean) zinemara joateko 12 gonbidapen (saridun bakoitzarendako bi sarrera).
- **MAITEMINDUAK** umeendako liburua, Erein argitaletxearen eskutik.

BALDINTZAK

- *Asteleheneko Goienkaria*-ren harpidedun izatea da baldintza bakarra.
- Irabazleekin gure harpidetza saila jarriko da harremanetan.

Harpidedun egiteko:

902 36 38 51

Astelehenetik egubakoitzera,
09:00etatik 21:00etara.

Urte amaierara arteko harpidetza: **10** €

ASTELEHENEKO **Goienkaria**

astelehenean, aste bukaera osoa

012 zozketa saridunak

Hauek izan dira aurreko zozketako irabazleak.
Zure izena zerrendan badago,
ZORIONAK!



Kataide tabernako Joseba Azpeitia
Arrasate
SARIA: Whirpool mikrouhin-labea

Whirpool mikrouhin-labea:
- Kataide taberna (Arrasate)

Aquarium-erako bi sarrera:
- Alkartu, Jolas eta Kultura Elkartea (Arrasate)
- Ines Iartza (Arrasate)
- Anboto taberna (Aramaio)
- Andoni Arando (Aretxabaleta)

Yelmo Cineplex-erako sarrerak:
- Antonio Ibarra (Bergara)
- Nora Madariaga (Bergara)
- Josu Balantzategi (Arrasate)
- Josu Arantzabal (Arrasate)

'Ipuin klasikoak' liburua:
- Jose Ignacio Apraiz (Eskoriatza)

'Maiteminduak' liburua:
- Arantxa Lazkano (Oñati)

TELEBERRIAK

Astelehenean hasiko da 'El Conquistador del fin del mundo' izeneko saiorako 'casting'-a

Abenturan oinarritutako *reality show*-a egin nahi du Euskal Telebistak, eta horretarako Atlantikoko albo bietako 16 euskaldun behar ditu. Hain zuzen ere, lagun horiek 35 egunez elkarrekin bizi beharko dute Argentinako Patagonian. Programarako ez dute elitezko kirolaririk behar; hortaz, abentura maite duen edozeinek parte har dezake. Izena emateko honako telefonora deitu beharra dago: 905 44 50 09; edo honako e-postara idatzi: *conquistador@eitb.com*.

Jende aldaketa ugari izango da aurtengo ikasturtean

Estatuko telebistetan jende aldaketa ugari ikusten gabiltza aurten. Baina akaso aldaketarik deigarrienak kate publikoan gertatuko dira, Estatuko Gobernuaren kolore aldaketaren eraginez. Hala, esaterako, sexuaren gainean berba egiteko Telemadrid-etik atera den Lorena Berdun TVEra pasatuko da aurtengo denboraldian. Bestalde, Kataluniatik ere pertsona ezagun bat ekarri du TVEk (berezi irrati uhinetan): Julia Otero. Eta azken urteotan eta lehenago ere, oro har, telebistan zeresan handia izan duen beste langile bat ere joango da Espainiako telebista publikora: Gran Wyoming, hain zuzen.

JULEN IRIONDO/ GOIENA TELEBISTAKO 'HARMAILATIK' SAIOKO AURKEZLEA

"Ez naiz kirolzalea bakarrik, beste kutsu bateko telebista saioak ere egingo nituzke"

UBANE MADERA

Kirol kontuek berebiziko garrantzia dute gaur egungo telebistetan. GOITBn ere hala da, jakina. Azken urteotan Julen Iriondo oñatiarra arduratu da lan horretaz *Harmailatik* izeneko saioaren bitartez.



U.M.

Aurten izango dugu *Harmailatik* ikusteko aukera?

Bai, astelehen iluntzeetan; azken urteotan moduan ahaleginduko gara batez ere Debagoienean gertatzen diren kirol kontu guztiak jaso eta haien berri ematen.

Izango du berritasunik?

Izango dira. Azken bi urteotan bi zatitan banatu dugu saioa: lehenengo laburpenak eta gero kirol tertulia, lehenengo mailako taldeen gainean. Gertatzen dena da orain arte ez dugula izan aukerarik irudiak izateko eta saioa apur bat pobre geratu ohi zaigula, batez ere, kontuan hartuta telebista kate handietan ere kirol saioak izaten direla. Hala, beste buelta bat eman eta erabaki dugu aurten beste modu batean landuko dugula kirola. Adibidez, behin kirol berri baten gaineko saioa egingo dugu, aurreneko lau saioak izango dira Debagoieneko preferenteko futbol taldeen aurkezpenak...

Zaila da halako programa bat egitea ala ibarrean aberastasun nahikoa dago kirol arloan?

Denboraldi bukaeran egoten da arazoren bat, baina normalean ez dago arazorik. Partiduaketa asko izaten dira asteburuetan, askotan aukeratu egin behar izaten dugu nora joan eta nora ez...

Hemen ere, futbola errege?

Bai. Baina zergatik da errege: hedabideek garrantzia ematen diotelako? Ala hedabideek garrantzia ematen diote errege delako eta jendeak hori ikusi nahi duelako? Azkenean, badakizu, kantxetara jende gehien eramaten duena futbola da. Futbol zelaietan egoten da jende gehien. Argi dago hori dela baita ere telebistan ematen zaion garrantziarengatik. Baina geu ahalegintzen gara beste kirolei ere tartea eskaintzen. Hori bai, zaila izaten da, kritikak ere entzuten ditugu.

> *"Ahalegintzen gara futbolaz gain beste kirolei ere tartea eskaintzen gure saioan"*

> *"Erkidegoko lehendakari izateko hauteskundeak ziruditen Athleticekoek"*

Zuk zeuk zein kirol duzu nahiago?

Partidua edo txapelketa ona baldin bada edozer ikusiko nuke. Adibidez, aurten Olinpiar Jokoak ikusten gustura ibili naiz. Bestela normalean futbola jarraitzen dut, Reala batez ere, pilota partiduak, txirrindularitza...

Eta egin, egiten duzu?

Baita ere, saiatzen gara noizean behin zerbait egiten: squashean, areto futbolean, mendira... Eta ea orain bizikletan ibiltzen hasten naizen, koadrilako guztiak hasi dira eta...

Zela ikusi dituzu Athleticeko hauteskundeak?

Ematen zuen erkidegoko lehendakari izateko hauteskundeak zirela, hedabideetan izan duten oihartzunagatik. Nik uste dut prentsan eta telebistan eman zaion garrantzia larregikoa izan dela. Eta uste dut hartu duela oso kutsu politikoa. Trapu zaharrak atera dira, medioen bitartez ahalegindu dira batak besteari kalte egiten... Alde horretatik nahiko kanpaina zikina izan da eta uste dut Athleticendako, normalean izan denerako, nahiko kaltegarria izan dela irudi aldetik.

Entzunda dugu kirolez arduratzen zaren arren, zure barru-barruko nahia dela bertsolaritza saio bat egitea...

Gustuko dut bertsolaritza eta zuk diozuna noiz edo noiz erdi brometan komentatu izan dut... Ez naiz kirolzalea bakarrik, eta egunkari bat hartzen dudanean ez ditut soilik kirolarekin lotutako berriak irakurtzen; hortaz, telebistan lan egiteko orduan ere irekita egongo nintzateke beste gauza batzuk egitera, eta horietako bat izango litzateke bertsolaritza saio bat egitea, gustuko dudalako.

LASAGABASTER

www.lasagabaster.com

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

BEHOBIA-DONOSTIA 2004

Has zaitez gertatzen!

Prestakuntza fisikoa eta kontrol medikoa
99 eurogatik soilik

Esfortzu proba / Osasun azterketa / Entrenamendu pertsonalizatuak / Pultsometroen erabilera / Autobusean joan-etorria / Athlon kamiseta / Eta... laktatoak egiteko aukera.

ARRASATE
KIROL MEDIKUNTZA ZERBITZUA
(Musakola Kiroldegia)
Elkano 27. ARRASATE.
Informazio zabalagoa: 943 77 16 77
Leku mugatuak!

ATHLON
ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN
AUKEA
Kirol Erakundea
BERGARAKO UDALA
ARETXABALETAKO UDALA
OÑATIKO UDALA

Goienkaria
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

Argitaratzailea: Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 Arrasate
Egoitza nagusia: **BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • 132 posta-kutxatila • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta-e: *goienkaria@goiena.com*
Ordezkaritzak: **Arrasate** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta-e: *arrasatepress@goiena.com*
Aretxabaleta 20550 Durana 11 • 151 posta-kutxatila • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta-e: *aretxagazeta@goiena.com*
Publizitatea: **Arrasate** 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93 • Posta-e: *publi@goiena.com*
Lege Gordailua: NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 18.228 ale • **Difusioa:** 18.185 ale.
HARPIDETZA: **943 79 21 00** • Posta-e: *harpidetza@goiena.com*
Goiena Komunikazio Zerbitzuak
OJD erakundeak ikuskatutako astekaria

EGUBAKOITZA, 2004ko irailaren 17a

Atzeskua

OIHANA ELORZA

Kontxi Izagirre/ Baserritarra

Fruta-arbolez inguratuta ei dago zuen etxea, Bidaurre.

Bai. Madariondoak, aranondoak, pikondoak eta, batez ere, sagarrondoak ditugu.

Zenbat kilo sagar jasotzen dituzue?

Urte batzuetan bestetan baino gehiago, noski. Pisatu ere ez ditugu sagar guztiak pisatzen, baina milaka kilo, hala ere.

Aurten sagar asko dagoela diote, sagar urtea dela.

Bai, baina iazkoa hobea izan zen. Aurten kantitate asko dago, bai, baina kalitate aldetik, hobea izan zen joan den urtekoa. Aurten usteldu egiten dira asko; arra ere asko dabil aurten.

Gainera, alea joan den urtekoa baino txikiagoa da. Badaude tamaina ederrekoak ere, baina orokorrean, ez da joan den urtekoa bezain beste hazi.

Eguraldiak du errua?

Joan den urtean bero egin zuen, baina, tarteka, freskatu egiten zuen gauetan. Aurten, ordea, gau eta egun egin du bero, ez du ezer freskatu, eta horrek eragin handia izan du.

Haizeak lurrera bota ditu asko eta egin duen euriak eta harriak zulatu egin ditu. Txoriek eta liztorrek ere asko zulatu dute aurten sagarra.

Nola batzen dituzue?

Lau lagun ibiltzen gara, normalean, eta zaku berezi bat erabiltzen dugu aurrealdean. Hara batu eta gero, kaxa handietara husten ditugu.

Nora saltzen dituzue horrenbeste kilo sagar?

Dendetan, azoketan... eta etxera ere etortzen zaigu jendea sagarrak erostera. Lehen, denda handietara ere eramaten genituen, baina baldintza asko eskatzen zizkiguten: denek tamaina berekoak izan behar zuten, adibidez; orain txikietara eramaten ditugu.

Sagardotegietara eramaten dituzue?

Ez. Guk jateko sagarrak ditugu, mahairakoak.

Irasagarrik (menbrilloa) egiten duzue?

Klase batzuekin egin daiteke, eta egiten dugu, bai. Etxerako egiten dugu. Azokara eraman genuen behin, jendeari gustatu egin zitzaion, eta orain hara eramateko ere egiten dugu. Lan handia eskatzen du, baina jendeak estimatzen du etxean egindakoa.

Astero joaten zarete merkatura?

Antzuolakora eta Bergarakora bai, astero. Horiez gain, Ordizian ere egon izan gara.

Zer moduzko plazak dira? Kilo asko saltzen dituzue?

Ibiltzen den jende kopurua ikusita, bai. Feriaz feria gabiltzanetik, gainera, gehiago saltzen dugu.

Zenbat kilo ekarriko dituzue bihar Bergarako San Martin feriara?

Auskalo. 20 metroko postua izango dugu. Pikuak ere hasi dira heltzen, eta batzuk eramango ditugu.

Kolesterola jaisteko oso ona ei da sagarra.

Bai, horixe esaten dute. Ni sagar-zalea naiz, eta bestela ere asko jaten ditut.

"Ibiltzen den jendea ikusita, asko saltzen dugu Antzuolako eta Bergarako azoketan"

"Aurten sagar asko dago, baina iazkoak kalitate hobea zuen. Aurten usteldu egiten dira, eta tamaina txikiagoa dute"

"Sagar batzuekin irasagarra ere egiten dugu; jendeak estimatzen du etxekoa"

► *Antzuola /56 urte / Sagarrondo asko dituzte*

PIPERRAUTSA

Planto

Bizpahiru aldiz erabili dut hemen delako Y grekoaren gaia. Eta artean urrun samar zegoenez, ahalegindu izan naiz proposamenak egiten, edo hausnarketarako ideiak botatzen. Azkenekoan nahi izan nuen umore puntua eman zutabearri, Teruel zela-eta. Baina akabo, planto egiteko ordua iritsi zait.

Amman sailburua ari zaigu sekulako kanpaina egiten, kosta ahala kosta sartzeko kaskezurrean bere trenaren asmo hori. Bay esatea proposatu zigun, hitzjoko inozoan. Mehatxuak ere luzatu ditu, iragarriz XIX. mendera itzuliko garela bere trena onartzen ez badugu. Orain azkena, eta lotsagarriena, izan da kanpai bueltaka zabaltzea abiadura handiko trena erabiliko dela merkantziak garraiatzeko, eta hustu egingo direla kamioiez gure errepideak. Hor bete da nire pikua.

Abiadura handia sortu zen eta garatu da bidaiariak garraiatzeko, hiriburu artean. Bere ezaugarri teknikoak daude horretara bideratuta: trazatua, makinak, geltokiak... Hori ezin da besterik barik erabili merkantzien garraiorako.

Alderantziz, merkantziak badira helburu, orduan pentsatu behar da beste tren mota bat, abiadura ertainekoa, merkantziak sortzen diren tokiak lotuko dituena, hartarako propio prestatua. Lehen ere ezagutu genituenen tankeracoa. Bide batez, zergatik desagertu ziren tren haiek?

Amman jauna: helburua aldatu bada, berraztertu proiektua. Ez tematu. Aski da.

MIKEL IRIZAR